

hh  
hik hasi

Antzuolako irakasleei elkarrizketa  
Musika Bigarren Hezkuntzan  
Heziketa emozionala eskolan  
Rebeca eta Mauricio Wild  
Helduaren begirada hezkuntzan  
'Motxilaren umea' filma  
Ibon Gaztañazpi

2017





BARNEKOTASUNA

# wakou

Naturaren jakin-mina

duten txikiengatik sortutako  
entziklopedia



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## BARNEKOTASUNA HEZKUNTZAN

Euskal Herriko hainbat eskolatan barnekotasuna jorratzen hasiak dira, barnekotasunak norbere dimentsio sakonenarekin harremantant jartzeko eta norbere burua hobeto ezagutzeko aukera ematen duelako. Ikasleek hezkuntza integrala jaso behar dutela argudiatuta, eta gizakiaren lau dimentsioei erantzun nahian —fisikoa, psikologikoa, soziala eta espirituala— ari dira lanean zenbait ikastetxe.

ELKARRIZKETA / 18

## ANTZUOLAKO IRAKASLEAK

30 urte baino gehiago daramatzate Maria Eugenia Irazabalek eta Axun Mujikak Antzuolako eskolan lanean. Uneotan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko koordinatzaileak dira biak. Gauzak beste era batera egin daitezkeela erakutsi dute Antzuolan. Teoria, praktika eta hausnarketa uztartuz, etengabe aldatuz joan dira eta egunero eraikiz doan eredu bizi bat sortzea lortu dute.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karnele Perez Urzua, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** GrafIk.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANtza S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-03-16).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Hezkuntza hobetzeko, protesta

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Barnekotasuna lantzen

18 ELKARRIZKETA

MARIA EUGENIA IRAZABAL  
ETA AXUN MUJIK

“Talde-lanean jardunez, aurrera egiten du proiektuak, eta eskola-komunitate osoari gauzak aldatzeko indarra ematen dio horrek”

24 ESPERIENTZIAK

Musika Bigarren Hezkuntzan

26 EKARPENA 1

Adimen emozionala eskolan

30 EKARPENA 2

Rebeca eta Mauricio Wild

36 GALDEIDAZU

MAPI URRESTI

Helduaren begiradaz

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

‘Motxilaren umea’ filma

42 ATZEKO ATETIK

Ibon Gaztañazpi







## 0-3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza (5. promozioa)

*Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakondu asmoz, 250 ordutik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean Hik Hasi-k. Hiru oinarri nagusi ditu formazio borrek:*

- Emmi PIKLER** (Koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- Loris MALAGUZZI** (Koordinatzailea: Alfredo Hoyuelos)
- Formakuntza pertsonala** (Koordinatzailea: Alvaro BEÑARAN)

*Ikaslerro bakoitzean, gaien adituak diren Euskal Herriko nabiz kanpoko bebitzaileek emango dute prestakuntza.*

Informazio osoa eta izena emateko aukera, martxoaren 13tik aurrera

**[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean

# Hezkuntza hobetzeko, protesta

## editoriala

BADAKIGU HEZKUNTZA NOLA HOBETU, GAKO UGARI DAUDE ORRIOTAN, DENBORA, DENBORA ETA DENBORA BEHAR DA ETA DENBORA BALIABIDEAK DA, ETA BALIABIDEAK DIRUA. INBERTSIOA BEHAR DA, EMAITZAK NAHI BADIRA.



Saiatzen zara (saiatzen da *hik hasi*) hezkuntza hobetzeko tresnak ematen, erreferentziak, informazioa, euskarriak. Saiatzen zara... Baina gero, errealitatea jaten duzu: irakasleak kalean daude, protestan: “Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetako langileen %75ek greba egin dutela esan dute sindikatuek. Lan baldintza hobekatu dituzte, eta hezkuntzarako baliabide prestuagoak”.

Barnekotasunaz idatzi dugu Gaian, gelditu, eta begiratu zure barnera, hausnartu: “Korrika bizi gara, presaka. Eta bizimodu mota horrek isla zuzena du eskolatan: lasaitasunik eza, kontzentratu ezina, gauza batean luzaro arreta jartzeko arazoak, soseguan egoteko zailtasunak... Egoera horren aurrean, hainbat eskolatan barnekotasuna eta espiritualtasuna jorratzen hasiak dira. Lanketa horrek norbere barnera begiratzeko erremintak ematen dituelako: Nor naiz ni? Zer nahi dut? Nola bizi besteekin?”.

**Eta irakasleak kalean daude, protestan: Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Barne Produktu Gordinaren % 3,6 bideratzen da hezkuntzara, Espainiako Estatuak % 4tik gora eta Europako Batasunak, batezbeste, % 5-6 bideratzen duten bitartean.**

Erizaintza eta Medikuntza fakultateetako irakasleek eskolan adimen emozionala landu behar dela azaldu digute Ekarpenean atalean, gelditu eta hausnartu: “Gaur egun, umeek estresa pairatzen dute, estimulu ugari baitaukate haien inguruan. Horregatik, garrantzitsua da erlaxatzen ikastea, eta egunero klasean erlaxazio-teknikak praktikatzeko. Hori onuragarria izan daiteke ikasleen egoera emozionalerako, klaseko girorako, eta haien errendimendu akademikorako ere”.

**Eta irakasleak kalean daude, protestan: hezkuntza aurrekontua jaisten ari delako 2009ko aurrekontuetatik. 167 milioi euro gehiago inbertitu beharko lirateke hezkuntzan orain dela zortzi urteko egoerara itzultzeko.**

Rebeca Wilden pedagogia aurrerazale eta errespetuzkoaz idatzi dugu ekarpena. Gelditu eta begiratu haurrari: “Lehen Hezkuntzako haurrak behar unibertsal bat dauka: mundua nolakoa den jakin nahi du. Bigarren Hezkuntzan, nerabeak duen behar unibertsal nabarmenena identitatearen bilaketari lotutakoa da: mundu honetan nor den aurkitu eta jakin nahi du. Giroaren kalitatearen beste ezaugarri bat lasaitasuna da: giroak lasaia izan behar du. Helduek bermatuko dute hori, haurren arteko elkarrekintzetan sor daitezkeen gatazketan afektuzko jarrera erakutsiz eta, behar denean, bizikidetzara-arauek oroitaraziz, denen lasaitasunerako”.

**Eta irakasleak kalean daude, protestan: Ratioak gora baitoaz. Eta plantilak behera: Hezkuntza publikoko plantilak, gutxienez 2.000 langiletan handitu behar dira kolektibo ezberdinetan sindikatuen arabera, egungo beharrei erantzuteko.**

Badakigu hezkuntza nola hobetu, gako ugari daude orriotan, denbora, denbora eta denbora behar da, haurren beharrak eta erritmoak errespetatzeko, hemen eta orain zentratzeko, sano egongo badira haurrak, ikasiko badute. *Eta denbora baliabideak da, eta baliabideak dirua.* Inbertsioa behar da, inbertsioa hezkuntzan, sare guztietan, emaitzak nahi badira. Irakasleoi geure lanean sinestea da gelditzen zaiguna. Horra Antzuolako herri ikastetxeak orriotan emango digun lezioa. Egunean egunean jasotzen ditugun tresnak, erreferentziak eta euskarriak geure lana hobetzeko baliatzea da gelditzen zaiguna. Eta bitartean, kalean, protesta.

“Filosofiaren galderan eta zientzien erantzunean trebatuko diren gizakiak behar ditugu”

Enrique Zuazua





## 100 LAGUN INGURU ELKARTU ZIREN TROKONIZEKO GEROA WALDORF ESKOLAKO PROIEKTUA EZAGUTZEKO JARDUNALDIAN

Hik Hasik antolatuta, Trokonizen (Araba) dagoen Geroa eskolako proiektu pedagogikoa ezagutzeko egun osoko bisita egin zen martxoaren 25ean. Waldorf-pedagogiaren inguruko azalpen orokorra eta hezkuntza-proiektuaren gaineko informazioa jasotzeaz gain, taldeka banatuta, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako nondik norakoen berri jaso zuten hezitzaileek. 100 lagun inguru elkartu ziren orotara, Rudolf Steiner pentsalari eta hezitzailearen filosofian onarritzen den pedagogia ezagutzeko.



## JAURLARITZAK EUSKARAZ ESKOLATU NAHI DITU ETORKINEN UME TXIKIAK

Eusko Jaurlaritzak etorkinen seme-alabak eredu euskaldunetan ikastea "errazten" duten ikastetxeetan eskolatu nahi ditu. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan sartzan diren ikasleak izango dira horiek, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak azaldu bezala, Eskola Inklusiboaren eta Kultura Artekoaren Eremuan Ikasle Etorkinei Hezkuntza Arreta Emateko II. Planaren —2016-2020 aldirakoa— aurkezpenean. Uriarteren iritziz, "D ereduaren alde egitea integrazioa bultzatzeko modu bat da. Erraztasun handiagoa izango dute euskara ikasteko". Oinarritzko Heziketako bigarren ziklotik aurrera sartzan diren ikasleen kasuan, ordea, beste faktore batzuk hartuko dituzte kontuan; hala nola, adina, aurretiko eskolatzea eta hizkuntza kompetentzia.

## LOMCE-REN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOEI ETA AZTERKETEI PLANTO EGITEKO DEIA EGIN DUTE

LOMCE-ren harira, 3. eta 6. mailan egin nahi diren ebaluazio diagnostikoen eta DBHko 4. mailako azterketaren aurrean planto egiteko eta LOMCE-ri ez! esateko deia egin du Hezkuntza Plataformen Topaguneak. Martxoaren 25ean Topaguneak Santurtzin egindako asanbladan adostu zuten inongo kontsentsurik ez duen ebaluazio sistema "inposatu" nahi duela LOMCE-k, ikasleen garapen integralik ez duela bermatzen, eta, gainera, ebaluazio jarraituaren kontra doala. "Ikastetxean gure autonomiaren baitako hezkuntza eredu/ curriculum propioa garatzeko oztopo dira. LOMCE-k inposatu nahi digun ebaluazio ereduaren kontra gaude-lako eta gure ebaluazioak guk geuk erabakiu nahi ditugulako". Horregatik erabaki zuten 3. eta 6. mailako ebaluazio diagnostikoen eta DBHko 4. mailako azterketaren kontra azalduko direla eta proba horiek ez egiteko beharrezko urratsak egingo dituztela. Era berean, aipatutako azterketen gaineko informazioa izan bezain pronto eskola komunitateari (bereziki familiei) ahalik eta informazio osatue-na emateko konpromisoa hartu zuten.



# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HEZKUNTZA “LEHENTASUN” IZATEKO ESKARIA EGITEKO GREBA EGIN DUTE EAE- KO IKASTETXE PUBLIKOETAKO LANGILEEK



Martxoaren 22an, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan langileen % 75 baino gehiagok lanera ez joatea erabaki zuten, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deitutako grebarekin bat eginda. Sindikatu deitzaileek emandako datua da hori. Eusko Jaurlaritzak berak onartu zuen deialdiak segida izan zuela; arratsaldean ikastetxeen % 90ean zuen galdera eginda Hezkuntza Sailak, eta onartu zuen horietako beharginen % 46k greba egin zutela.

Ikasgeletan, beraz, ezohikoa izan zen egoera, ohi baino handiagoa isiltasuna. Kaleetara, ordea, ozen eraman zuten langileek protestaren oihartzuna. Donostiako manifestazioaren amaieran, esaterako, argi adierazi zuten zein den langileen eskakizunaren ardatza: “Hezkuntza lehentasuna izatea. Egun, Jaurlaritzarentzat, hezkuntza ez da lehentasuna”. Mezuak aintzat hartzen ez badira berriz ere kalera joateko prest daudela azaldu zuten. Besteak beste, ondoko eskakizunak egin zituzten *Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki* lelopean egindako mobilizazioetan: ordezkapenak hobetzea, langileen egonkortasuna handitzea, ratio txikiagoak, soldata eguneratuak, LOMCE eta Heziberriren aurkako mezuak...

Grebaren bitartez azken urteetan murrizketek hezkuntzaren kalitatean izan duten eragina kritikatu nahi izan dute hezkuntza arloko profesionalak; behin behinekotasunean jarri dute arreta bereziki, ikastetxeen hezkuntza proiektuen garapena baldintzatzen duela argudiatuz. Sindikatuen esanetan, behin behinekotasunak lanpostu dantza eragiten du ikasturtez ikasturte, eta horrek ikastetxearen hezkuntza proiektua baldintzatzen du. Hots, hezkuntza jardueraren iparrorratzaren kalte da. Eman dituzten datuen arabera, irakasleen % 38 behin behinekoak dira; Haur Eskolak partzuergoko hezitzaileen % 57 egoera berean daude; Heziketa Berezikoen % 58; sukalde eta garbiketara zerbitzuen % 63. Orotara, 11.000 langile.

## NAFARROAN, ESKOLA PUBLIKO ETA ITUNPEKOETAN IGO EGIN DA EUSKARAZKO EREDUA

Iruñerrian eta Nafarroa hegoaldean, eta sare publiko nahizi pribatuan, euskarazko hezkuntza ereduak gora egin duela baieztatu du Nafarroako Departamentuak. Datuak aztertuta, 6.100 aurrematrikula egin dira, eta horietatik 1.873 euskarazko D ereduaren. Gainera, D eredia hazi da gehien sare publikoan; 132 aurrematrikula berri jaso dituzte. Nafarroako ikastolek ere gora egin dute, 461 eskaera jasota: iaz, 452 jaso zituzten. Hala, euskarazko lerroa Nafarroa hegoaldeko “eremu ez-euskaldunean” zabalduko dutela adierazi du Jose Luis Mendoza Hezkuntza kontseilariak; zehazki Antzin, Allon eta Erriberrin.

## BAIONAKO LEHEN ESKOLA PUBLIKOAK MURGILTZE SISTEMA ESKAINIKO DU DATORREN IRAILETIK AITZINA

Santa Izpirituko Jules Ferry ama-eskolak gela bat irekiko du osoki euskaraz, heldu den irailetik aitzina, 3 eta 4 urteko haurrentzat. Baionako lehen eskola publikoa izanen da euskarazko murgiltze sistema eskaintzen duena.



## PEDAGOGIA ETA ESPAZIO ERALDATZAILEAK AZTERTUKO DITUZTE IKASTOLEN JARDUNALDIETAN

Maiatzaren 5ean eta 6an izango dira Ikastolen Elkarteak "Pedagogia 3.0. Berritu, eraldatzeko" izenburupean antolatu dituen 24. jardunaldi pedagogikoak. Federico Malpica, Rosan Bosch eta Aitor Axpek pedagogia eta espazio eraldatzaileen gaia aztertuko dute Orona Ideon (Hernani) eta EHUren Bizkaia aretoan (Bilbo).

Pedagogia eraldatzailea eta hura garatzeko espazioak ardatz hartuta, ikastoletan garatzen ari diren eredu pedagogikoarentzako bitartekoak aztertzea eta eskaintzea dute xede. Informazio gehiagorako [ikastola.eus](http://ikastola.eus) webgunera jo daiteke.



## "AHO BETE AMETS" HAUR POESIA LANTZEKO LANTEGIA ESKAINIKO DU YOLANDA ARRIETA IDAZLEAK

Maiatzaren 6an, larunbatarekin, 10:00etatik 13:00etara Etxarri Aranzko Kultur Etxean "Aho bete amets" haur poesia jorrazteko lantegia emango du Yolanda Arrieta idazleak, irakasle, irakasle-gai, guraso, monitore eta liburutegiko arduradunei zuzenduta.

Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aldeaz aurretik [uskara1@sakana-mank.eus](mailto:uskara1@sakana-mank.eus) helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira eta matrikula 10 euro kostako da. Bertaraten direnek ahozko haur poesiaren onurak eta baliabideak ezagutuko dituzte modu praktikoan. Material gaurkotua non topatu ere erakutsiko zaie.

## UZTAIL HASIERAN UDAKO TOPAKETAK EGINGO DIRA DONOSTIAN ETA BILBON

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak antolatuta, urteroko legez, Udako Topaketak egingo dira uztail hasieran, irakasleei, hezitzaileei, gurasoei nahiz heziketaren arloko profesionali zuzenduta. Uztailaren 3, 4 eta 5ean Donostian, eta, 6 eta 7an Bilbon izango dira. Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dira: pedagogia sistemikoa, mindfulness, ipuinak, adimen antizak, antzerkia, musika, Montessori pedagogia, heziketa emozionala, askatasunerako pedagogia, haurren autoestimua, motibazioa, mitologia, psikoterapia eta gorputz hezkuntza... Matrikula egiteko epea maiatzaren 1ean irekiko da eta [hikhasi.eus](http://hikhasi.eus) webgunearen bidez egin ahalko da izen-ematea.

## JARDUNALDIA EGINGO DUTE LANDA- EREMUKO ESKOLEK APIRILAREN 7-8AN

Nafarroako landa-eremuko eskolen errealitatea zer-nolakoa den aztertze jardunaldia egingo da apirilaren 7an eta 8an, Iruñeko Nafarroako Museoan. Hizlarien artean izango dira Ana Isabel Ayala, Roser Boix eta Mikel Goñi. Informazio gehiagorako 848 428 786 zenbakira dei daiteke.



# HIZPIDE IZANGO DA

## HARREMAN-EREDU BERRIEI BURUZKO JARDUNALDIA EGINGO DA MAIATZAREN 19AN ETA 20AN DONOSTIAN



III. "Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldien baitan, bai norbere garpenerako eta bai komunitatearen ongizaterako harreman osasuntsuak izateko zer-nolako garrantzia duen jorratuko da, maiatzaren 19an eta 20an Donostian, Hik Hasik Oinherriko beste erakundeekin elkarlanean antolatu duen jardunaldian.

Ostiralez, Lorea Agirre pentsalariak eta Jakin-eko zuzendariak irekiko du saioa, eta harreman-eredu sanoen garrantziaz mintzatuko da. Horren ostean, Finlandiako Hezkuntza Nazionalako aholkulari Leo Pahkinen hartuko du hitza eta "Zer eratako harremanak eta nola sustatzen dira Finlandiako Hezkuntza Sistemak" izenburupean solastuko da. Ondoren, Ane Ablanedo eta Miren Camisonek bortizkeriarik gabe harremanak edukitzeko eredu berrien gainean hitz egingo dute; eta Arremanitzeko Ibon Arrizabalagak eta Emagineko Eburne Epeldek hezkuntza arloan harreman osasuntsuak sustatzeko ereduen adibide batzuk emango dituzte. Ostiral arratsaldean, berriz, Herri Hezitzaileen hainbat adibide ezagutzeaz gainera, Alfredo Hoyuelosek "Haurrak, eskubideak dituzten pertsona handi horiek" gaia jorratzeko dokumental bat erakutsiko du eta ondoren eztabaidarako tarte irekiko da.

Larunbatean, ostera, Heike Freire pedagogoak eta *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariko zuzendariak emango dio hasiera egunari "Ongizatea, tratu ona eta demokrazia eskoletan" gaiaren inguruan mintzatzuz. Gero, Donamartiriko Arberoa ikastolako komunikazio ez-bortitzean oinarrituriko esperientzia nahiz KiVa programa ezagutzeko aukera izango da; eta, amaitzeko, Amelia Barquinnek hitz egingo du eskolako harreman parekideei eta aniztasunari buruz.

Izena emateko epea apirilaren hasieran irekiko da eta [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunearen bidez egin ahalko da matrikula.

## 0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEI BIDERATURIKO FORMAZIOAN IZENA EMAN DAITEKE ORAINDIK

0-3 urte bitarteko hurrekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzenduriko bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasik, bosgarren aldiz. Formazioak hiru oinarri nagusi izango ditu: 1. Emmi Pikler, Juanjo Quintela psikologoak koordinatuta; 2. Loris Malaguzzi, Alfredo Hoyuelos Iruñeko Udal Haur Eskolen arduradunak koordinatuta; 3. Formazio pertsonala, Alvaro Beñaran psikomotrizistak koordinatuta. Ikaslerro bakoitzean gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko irakasleek emango dute prestakuntza. Matrikula [hikhasi.eus](http://hikhasi.eus) webgunean egin daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 37 14 08 telefono zenbakira dei daiteke edota [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus) helbidera idatzi.





Euskal Herriko hainbat eskolatan barnekotasuna jorratzen hasiak dira, barnekotasunak norbere dimentsio sakonenarekin harremanetan jartzeko eta norbere burua hobeto ezagutzeko aukera ematen duelako. “Barnetasunaren lanketa hezkuntzan” izeneko ikerketa-proiektua egin du Eli Egañak. Eskolan gizakiaren dimentsio fisikoa, psikologikoa eta soziala joarratzeaz gain, espirituala ere landu egin behar dela defendatzen du. Bestalde, “Barrukotasuna nola hezi” gaia jorratuko dute maiatzean Arantzazun (Oñati) *Espiritualtasuna XXI. Oinarriak, loturak eta galderak* izeneko kurtsoaren baitan. Ikastaroaren koordinatzaileetako bat da Jon Sarasua eta bere ustez, espiritualitatearen arloan patxadaz ikusi behar da nondik eta nola elikatu gaitezkeen, zer dagokion eskolari eta zer gizarteko beste arlo batzuei.

# GAIA:

# BARNEKOTASUNA LANTZEN

Barnera begiratu eta norbere buruaren kontzientzia hartzea xede

**K**orrika bizi gara, presaka, zurrunbiloan, ihesi, norbere barrura begiratu gabe... Gaurko gizartean isiltasunak, baretasunak, soseguak, patxadak... leku gutxi dute. Eta bizimodu mota horrek isla zuzena du eskoletan: lasaitasunik eza, kontzentratu ezina, gauza batean luzaro arreta jartzeko arazoak, asperdura, soseguan egoteko zailtasunak...

Egoera horren aurrean, Euskal Herriko hainbat eskolatan barnekotasuna eta espiritualtasuna jorratzen hasiak dira. Lanketa horrek norbere barnera begiratzeko erremintak ematen dituelako, eta horrela, bakoitzak norbere buruaren kontzientzia handiagoa hartzeko aukera duelako: Nor naiz ni? Zer nahi dut? Nola bizi besteekin? Nolako harremanak eraiki? Nola izan arduratsuagoak inguruarekin?... Azken batean, barnekotasunak pertsonak euren dimentsio sakonekin harremanetan jartzeko eta nor bere burua ezagutzeko aukera ematen du. Zer dira, baina barnekotasuna eta espiritualtasuna? Zein toki izan behar dute eskolan? Eta nola egiten da horren guztiaren lanketa?

Ikasleek hezkuntza integrala jaso behar dutela aipatzen da behin eta berriz, heziketak pertsona osoak egiteko balio behar duela. Hain zuzen ere, argudio horren izenean eta gizakiaren lau dimentsioei erantzun nahian ari dira lanean hainbat ikastetxetan. Dimentsio horietan lehena fisikoa

litzateke, alegia, gorputza. Bigarrenean alderdi psikologikoa legoke; hortik, letorke, adibidez, onartua eta maitatua izateko beharra. Hirugarrenik, dimentsio soziala dago, gizakia gizartean, besteekin bizitzera daramana. Eta bada sakonagoa den beste dimentsio bat ere, espiritualtasunari lotua dagoena, biziaren zentzua, zoriona eta barne bakea bilatzen dituen. Barnekotasunak azken dimentsio horri egiten dio erreferentzia.

“Barnetasunaren lanketa hezkuntzan” izeneko ikerketa-proiektua egin du Eli Egañak HUHEZIKO BERRIMET (Berrikuntza Didaktiko-Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Unibertsitate Masterra) master amaierako lan gisa. Hainbat autoreren lanak aztertu ostean, dio gizakiaren beste dimentsioak lantzen diren bezala, barnekotasuna ere irakatsi egin behar dela ikastetxetan, haurrek ikasi egin behar dutela euren zatirik sakonenarekin konektatzen. “Hezkuntzaren xedea norbanakoaren garapen integrala sustatzea izan behar da. Horretarako, ikasle bakoitzak dituen adimen eta gaitasun ezberdinak ezagutu, identifikatu eta hauetako bakoitza garatzeko beharrezkoak diren tresnak eskaini beharko zaizkie ikasleei. Dimentsio fisiko, psikologiko, espiritual eta sozialaren garapena integrala izan dadin, lau arlo horiek elkarreaginean garatu behar lirateke bakoitzaren berezko gaitasunak potentzialtasun osoz sustatzeko eta pertsona bezala hazteko”.



GAIA:

## BARNEKOTASUNA LANTZEN

Barnera begiratu eta norbere buruaren kontzientzia hartzea xede

### Espiritualtasuna, adimen anitzen teoriaren baitan

Askotariko adimenen teorian oinarrituz lana egiten duten hainbat pedagogo, irakasle eta ikastetxeren arabera, gizakiak duen adimenetariko bat da adimen espirituala, eta barnekotasuna adimen mota hori garatzeko tresna. 1983an aurkeztu zuen Howard Gardner psikologoak eta AEBetako Harvard Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak adimen anitzen teoria. Iraultza ekarri zuen ikaskuntza-prozesura. Gardnerrek landutako teoriaren arabera, pertsona guztiek zortzi adimen mota dituzte gutxienez, eta edonor da adimentsua, batean ez bada bestean. Zortzi ordenagailu balira bezala, giza burmuinean, gutxienez, zortzi adimen mota daudela dio Gardnerren teoriak: adimen linguistikoa, adimen logiko-matematikoa, adimen musikala, adimen zintestesia (gorputzaren mugimendurekin loturik dagoena), adimen bisual-espaziala, adimen intrapertsonala, adimen interpersonala eta adimen naturalista. Adimenen zerrenda irekia egin zuen Gardnerrek, eta, geroztik, Branton Sheareren ekarpenaren harira, adimen espirituala edota existentziala deitzen dena gehitu dute zerrenda horretara hainbat autorek. Eta ildo horretan lanean dihardute Euskal Herriko zenbait ikastetxek ere, bereziki Kristau Eskolek.

Bestalde, Delors txostenak 1996an hezkuntzan ipar gisa hartu beharreko lau zutabe zehaztu zituen: ezagutzen ikatea, egiten ikatea, elkarrekin bizitzen ikatea eta izaten ikatea. Egañaren arabera, azken bi zutabe horiekin legoke lotuta barnekotasunaren lanketa, baina orain arte lehen biak jorratu dira gehien. Ana Alonsok *Pedagogia de la interioridad*. *Aprender a ser desde uno mismo* liburuan aipatzen duenari

jarraiki, Egañak dio jakintza kognitiboa ez dela nahikoa ikaslearen heziketa integrala bermatzeko. “Gizarteak kanpora begiratzera bideratu gaitu, eta hezkuntzak horri eman dio erantzuna, gugandik kanpo dagoena irakasteari eman dio garrantzia, gure barnekotasuna alde batera utzita. Pertsona osoak hezteko, garrantzitsua da inguratzen gaituen munduan kokatzea, eta profesionalki garatzeko aukera izatea. Baina ez da garrantzi txikiagokoa, geure burua ezagutzera iristea eta gure buruak ulertzeko gai izatea, nor garen jakitea, zer nahi dugun, eta norantz joan nahi dugun”.

Nazioartera begira, adibidez, Erresuma Batuko OFSTED (Office for Standards in Education) txostenean, adimen espirituala hezkuntzan lantzeko proposamenaren inguruan iritzi ezberdinak kontuan hartu eta gero honela definitzen dute adimen mota hori: “Garapen espirituala gizakiaren elementu ez-materialaren garapena da. Batzuek arimaren garapen gisa definitzen dute; beste batzuek, nortasunaren edo izatearen garapen gisa”.

EAEn indarrean dagoen Heziberrik, bere aldetik, pertsonaren hezkuntza integrala garatzeari eta izaten ikasteari ematen dio garrantzia. Xedapen orokorretan irakurri daiteke oinarritzko hezkuntzaren helburua dela “gizakiaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea dimentsio guztietan (...) nortasuna osoki garatuz (...) Oinarritzko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu”. Hori lortu ahal izateko, kompetentzietan oinarritutako irakaskuntza proposatzen du, eta jasotzen denez, oinarritzko kompetentziak “pertsona guziek beren burua errealizatzeko eta garatzeko” izango dira.



Egañak gogorarazten duenez, “izaten ikasteak” eta “elkarrekin bizitzen ikasteak” badute aipamena legean, eta horien lanketa ikastetxeetan integratzeko aproposa litzateke barnekotasunaren lanketa. “Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da bakoitzak bere burua ondo ezagutu eta sakontzea. Hau da, inteligentzia espirituala garatu eta barnekotasuna lantzea, termino horiek legean modu esplizituan aipatzen ez diren arren”.

### Zein toki egin espiritualtasunari eskolan?

Gizakiak duen irekidura existentzialaren aurrean egin ohi duen jarduna da Jon Sarasua pentsalariaren hitzetan espiritualtasuna. *Espiritualtasuna XXI. Oinarriak, loturak eta galderak* izeneko kurtsoa ari dira egiten lehen aldiz Arantzazun (Oñati), eta horren barruan “Barrukotasuna nola hezi” gaia jorratuko dute maiatzean; besteak beste, hezkuntza arautuan alor horrek izan dezakeen tokiaz gogoeta egiteko. Ikastaroaren koordinatzaileetako bat da Sarasua. Bere esanetan, zuzenean gai hori jorratzera jo aurretik, garrantzitsua da espiritualtasuna kontzeptura hurbilpen bat egitea. Hark adierazten duenez, gizakiak badu nolabaiteko irekidura existentzial bat, kultura desberdinetan, zibilizazio desberdinetan eta aro desberdinetan errepikatzen dena. “Irekidura existentzial hori modu askotara defini daiteke, esan genezake gizakiak baduela gose bat, gehiagorako irekidura existentzial bat, infiniturako irekidura bat, errealitate sakonagorako dei bat... Azken batean, historian zehar, gizakia galdera existentziale-ra irekia den espezie bat bezala ikusten dugu eta kulturaren arabera hori modu batera edo bestera manifestatzen da”. Beraz, oinarri horretatik abiatuta, Sarasuaren arabera, espiritualitatea litzateke irekidura horren inguruan gizakiak egiten duen jarduna. Alegia, zer egiten du gizakiak pertsonalki nahiz kolektiboki gehiagorako irekidura existentzial hori bizitzeko, espresatzeko eta garatzeko?

Erljioak lirarteke hori mamitu duten korronte historiko handiak. Sarasuak dioen moduan, gizakia ezinbestean historikoa delako, kulturala delako eta korrontean doalako. Baina, XXI. mendean nola jorratu espiritualtasuna? Galdera horri erantzuteko orduan, gaur egun bi korronte nagusi izan behar dira kontuan “Espiritualtasuna XXI” ikastaroaren koordinatzaileak azaldu bezala. Korronte batek dio, tradizio espiritual handietan, sakonean, intuizio komunak daudela eta intuizio komun horietan jarri behar dela arreta, eta gainditu egin behar dela erlijioek formatik, tradizioetik, kulturatik dutena, eta erlijioen muinari bakarrik erreparatu. Intuizio komun horietako bat litzateke, adibidez, sumatzea erreali-

tateak baduela hondo bat edo iturri bat, gure pentsatzeko gaitasunetik harago dagoena, baina aldi berean orainean presentzia duena. Beste korronteak, berriz, dio ez dela sanao espiritualitatearen muin komun hori bereiztea tradizio espiritual bakoitzetik, baizik eta tradizio bakoitzak eman behar duela berea, emari oso aberatsa duten bideak direlako.

Horrekin guztiarekin, ordea, zer egin eskolan? Zein toki behar luke izan espiritualitatearen lanketak? Nola egin? Sarasuak, bere aldetik, erantzunak baino gehiago galderak ditu. Gai konplexua delako eta erantzun samurrik ez duena. “Batetik, gizaki oro delako korronte handien zordun, eta bestetik, gero eta tendentzia ezberdin gehiago elkarbizi diren gizartean bizi garelako. Beldur naiz historian gure erlijioak izan dituen elementu negatiboak botatzearekin batera belaunaldi batetik bestera ez ote dugun irekidura existentzial horrekiko jardun oro erauzi. Alegia, espiritualtasuna bera. Hori da gure gertuko historia. Ikusi behar duguna da, patxadaz, arlo honetan nondik eta nola elikatu gaitzekoen. Iruditzen zait oraindik zurrunbiloan pasako ditugula urte batzuk edo hamarkada batzuk. Horri lotuta, nik zalantza dut dena eskolari eskatu behar ote zaion, nire ustez gauza bat delako heziketa eta beste bat eskola. Gaur egun gainera ez da erraza kultura eta erlijio ezberdinak dauden gunen batean horrekin zer egin erabakitzea”.

Erljio korronte guztiek garatu dute beren sinesmenetan oinarritutako espiritualtasuna eta barnekotasuna, baina Egañak bere lanean jaso duenez, gaur egun, hezkuntzan, oro har, espiritualtasunaren eta barnekotasunaren lanketa erlijioetik bereizita egiten da. André Compe-Sponville filosofoaren hitzak dakartza: “Erljioa ez da espiritualitatearekin nahastu behar. Hori nola sinestunek hala ateok egin ohi duten akats bat da: pentsatzea soilik erlijio bat praktikatzan dutenek bizi dezaketela espiritualtasuna”. Francesc Torralbak *Inteligencia espiritual* liburuan esanak ere gogorarazten ditu Egañak: “Adimen espirituala ez da besterik gabe erlijio-kontzientziarekin identifikatu eta nahasi behar. Lehena beharrezkoa da bigarrena bizi ahal izateko. Alegia, gizakiak adimen mota hori duelako soilik bizi ahal du esperientzia erlijioso bat, baina adimen espirituala izate antropologiko bat da, eta ez fede kontu bat”.

Egañak espiritualtasuna definitu duten hainbat aditu aztertu ditu eta haietan oinarriturik ondoko kontzeptuak atera ditu: berezkoa, bizitzaren esanahia, norbanakoaren kokapena kosmosean, autotranszendentzia, adimena, barne bizitza, besteekiko maitasuna, besteekiko erlazioen sakontasuna, balioak, emozioak, elkartasuna, pentsamendu kritikoa,

# GAIA: BARNEKOTASUNA LANTZEN

Barnera begiratu eta norbere buruaren kontzientzia hartzea xede

errendimendua, etab.

Master amaierako ikerketan Egañak ondorioztatzen duenez, adimen espirituala gizakiak berezkoa duen gaitasun bat da, landu egin beharko dena ikaslea bere osotasunean gara dadin. Hala, ikasleak bere autoezagutza eta emozioak erregulatu ahalko ditu, bere inguruko espazio eta pertsonenkin erlazio positiboak eraiki ahal izateko eta horiek modu kritikoan aztertu ahal izateko, autotranszendentziarako eta norberaren hobekuntzarako ateak irekiz.

Horretarako bidea litzateke barnekotasuna jorratzea. Alegia, norbere barne-lanketa egitea litzateke barnekotasuna, eta adimen espirituala garatu ahal izateko tresna ere bai. Kontzeptu hau ere ohikoa da erlijioarekin lotzea, erlijioetan barnekotasuna kontzeptua erabili ohi delako bizitza espiritualaren sinonimo gisa. Baina hazkunde pertsonaleko proposamenetan, barnekotasuna norbere kontzientziarekin lotzen da, edota norbere emozioen kontzientziarekin. Beste autore batzuen esanetan, aldiz, benetako NIari dagokiona da barnekotasuna, norbere sakonenean dagoen hori. Egañak dioenaren arabera, adimen espiritualaren aspektu bat da barnekotasuna. “Barnekotasuna bere barnera begiratzeko gizaki orok duen aukera da, pertsona gisa izateko eta hazteko aukera. Garenak izateko aukera geure barneko punturik sakonenean. Zerikusia dauka gure izaterik intimoen deskubritzearekin, eta gure inguru guztiarekin harremana bizitzearekin”.

Espiritualtasuna eta barnekotasuna bereiztea askotan ez dela samurra dio Sarasuak, baina continuum beraren parte balira bezala hautematen ditu bi kontzeptuok. Hastapenean legoke barnekotasuna, aurrerago, barneagoko geruza batean, espiritualtasuna: “Continuum batean kokatu behar balira, barnekotasuna hasiera-hasieran legoke, eta akaso, hori maila txikian, jorra liteke eskolan. Barnekotasuna gauza askori dei dakioke; adibidez, lasaitzen ikastea barnekotasunaren lanke-ta da, baita isiltasunean edota soseguan egotea ere. Eta, noski, horiek badira espiritualtasunaren ezaugarri ere, baina espiritualtasuna hori baino gehiago da. Hortaz, barnekotasuna litzateke espiritualitatearen oinarritzko gaitasun batzuen lanketa, barnetasunik gabe zailago delako espiritualtasuna, hori baino gehiago izan arren”.

## Ongizatearen paradigman, zein da arriskua?

Sarasuaren arabera, gaur egun ongizatearen paradigma dugu nagusi, edo ongizatearena baino gehiago ondo-sentitzeare-

na. Pentsalariaren hitzetan, ondo-sentitzea bihurtu da gaurko bizimoduaren ipar nagusi, ia gauza guztien neurria. “Hor badago nolabaiteko ondo-sentitzearen industria bat, gero eta gehiago ezagutzen duguna. Eta hezkuntzan ere egon daiteke arriskua ondo-sentitzearen hezkuntza egiteko, etengabe”. Horrek Sarasuaren ustez, baditu bere alde onak, baina baita arriskuak ere. Alde ona argia litzateke: “Ongizatea eta ondo-sentitzea helburu interesgarria da. Horrek ondo bizi nahi dugula esan nahi duelako. Baina, bestetik, indar guztia uneoroko ongizatean jartzeak arazoak sor ditzake, baita espiritualtasunaren arloa ere. Arriskutsua baita espiritua-litatea bihurtzea ondo sentitzeko industria horren eskaintza bat gehiago. Alegia, behar dudak sakontasun dosi bat nire ondo sentitzen horretan”. Sarasuak gaineratzen duenez, espiritualtasunaren ibai historiko sakonei begiratu gero, hori ere ekar dezake espiritualtasunak edo hori ere ekartzen du, baina hori baino gehiago da. Beraz, “Espiritualtasuna XXI” ikastaroko koordinatzailearen hitzetan, arriskua egon daiteke, batetik, espiritualitatea banalizatzeko, eta bestetik, instrumentalizatzeko. “Imajinatu orain enpresak hasten direla espiritualtasuna lantzen langileak hobeto sentitu eta gehiago produzitu dezaten. Espiritualtasuna tradizioan ez da hori. Espiritualtasunak eraman zaitzake ondo sentitzera, baina baita ere eraman zaitzake zure bizitza ematera, alferrik galtzera... Espiritualtasuna da norbere gunerik sakonetik elikatzea eta irekitzea, eta ez da kabitzen edo agortzen ongizatearen, ondo sentitzearen paradigma horretan”.

Edozein kasutan, gaur egun Euskal Herriko eskoletan barnekotasuna lantzeko egiten ari diren ahaleginak oso interesgarriak iruditzen zaizkio Sarasuari, norbere barneko zuntz batzuk ukitzeko egiten den oro positiboa delako. Gizarteak daraman abiadurarekin, pantailek ekarri duten estimulazio etengabekoarekin, esposizio izugarriarekin, burmuinak hartzen duen belozidarekin... horren guztiaren aurrean isiltasunean egoteko esparruak, kontzentratzeko espazioak, arreta luzaro gauza batean jartzeko gaitasuna... lantzea ezinbestekoa dela uste du, lehenik eta behin, gaitasun humanoak direlako, eta horiek lantzeak barnekotasuna jorratzea eskatzen duelako. “Eta barnetasun hori gabe, gainera, ezin da espiritualitatekerik landu. Gauza bat da hori: barnetasuna lantzea gaur egun ditugun premiei erantzuteko, eta beste gauza bat da espiritualitatea, hori baino barrurago egon daitekeen geruza, edo arlo existentzialaren inguruko jardun esanguratsu bat. Bigarren hau plano hautazkoago batean dago beharbada. Irekidura existentzial sakon horren lanketa zenbateraino egin behar den eskolan, edo zenbateraino hori dagokien tradizio spiritualei edo gizarteko beste eremu batzuei, ez dakit. Baina uste dut continuumean barnetasunetik



## GAIA: BARNEKOTASUNA LANTZEN

zenbat eta gehiago hurbildu espiritualtasunera, gero eta hautzakoagoa dela. Jimnasia eman dezakegu eskolan denentzat, baina dantza beharbada beste gauza bat da. Hori bai, barnekotasun teknika batzuk lantzen baditugu eskolan, akaso hobe da barnekotasun deitzea, eta ez espiritualtasuna”.

### Nola landu daiteke barnekotasuna eskolan?

Esan bezala, Euskal Herriko hainbat eskolatan barnekotasuna lantzen hasiak dira. Nola egiten da, baina, hori? Zein jarduerara modu erabil daitezke? Edota zer-nolako teknikak? Egañak ikerketa-lanean azaltzen duen moduan, barnekotasuna lantzeko ezinbestekoa da arreta momentura ekartzea, eta horretarako eskoletan erabili ohi den praktiketako bat meditazioarena da. Meditazioa burua lasaitzea litzateke, arreta orainean jartzea eta momentuan gertatzen ari den horri erreparatzea. “Helburua da haurrei arreta osoa garatzen laguntzea, alegia, hemen eta orain egoteko gaitasuna barneratzea. Gure arreta orainera, bizitzen ari garen momentura ekartzea lortzen badugu, lasaiago sentitzen ikasiko dugu”. Egañak aztertu dituen autoreek diotenaren arabera, barnekotasunak hainbat gaitasun sustatzeko balio du: sosegua, gertatzen ari dena distantziatik behatzea, barne askatasuna, enpatia... “Barnekotasunaren lanketarekin beste era batera ikusiko ditugu gauzak, eta ikuspegi horrek suertatzen zaizkigun egoerei irtenbide egokiagoa aurkitzen lagunduko digu”.

Beraz, barnekotasuna lantzeko gakoetako bat arreta orainera ekartzea da eta horretarako hainbat jarduerara egin ohi dituzte

eskolatan: gorputz dinamikak, erlaxazioa, bisualizazioak, ipuinak eta istorioak, mandalak, meditazioa, isiltasunaren txokoa... Elena Andresek *La educación de la interioridad: un proceso de desvelamiento* liburuan jasotakoan oinarrituz, barnekotasunaren lanketa hiru bloketan oinarrituz egin daitekeela proposatzen du Egañak: lehen blokean gorputzaren lanketa egingo litzateke; bigarrenean, emozioen integrazioa jorratuko litzateke; eta hirugarrenean transzendentziara irekitzea. Gorputzaren lanketaren atalean xedea da erlaxazio tekniken, kontzientzia korporalaren, luzaketa ariketen eta arnasketa erritmoen bitartez, “oreka fisikoa bultzatzea eta gorputza pertsonaren barneko dimentsioarekin bateratzen ahalegintzea”. Horretarako era askotako jarduerak proposatzen ditu: “Erlaxazio jarduerak, haien bidez, isiltasunetik abiatuz, nor bere burua zein besteara hobeto entzuteko; kontzientzia korporala, isiltasuna lagun, atentzioa eta kontzentrazioa lantzeko, mugimendua, dantza eta espresioa, etabar erabiliz”. Emozioen integrazioari dagokion bigarren blokean, hausnarketa pertsonalaren, elkarrizketaren eta laguntza indibidualizatuaren bitartez, autoezagutza eta bestearen deskubrimendua ahalbidetuko dituen tresnak izatea lortu nahi da. Horretarako, adibidez, bisualizazioak, begiak itxita ibiltzea, objektu sinbolikoak... erabil daitezke. Azkenik, transzendentziara irekitzea landuko litzateke. “Bloke horretan, meditazio ariketa sinpleek sortutako barne esperientziatik abiatuz, lortu nahi da gazte eta nerabeak gerturatzea giza izaeraren galdera esentzialen planteamendura. Horretarako era askotako jarduerak egin daitezke: testu adierazkorren irakurketa, heriotzaz, ametsaz eta maitasunaz hitz egitea, etab”.



# ‘i-proiektua’, adibide bat

Gorputza, burua eta espiritua. Hiru dimentsio horiek kontuan hartuta lantzen dute barnekotasuna Bergarako Mariaren Lagundia ikastolan —Kristau Eskola da—. 2011. urtean Mariaren Lagundiaren barruko ikastetxeen artean Espainiako Estatu mailan egindako gogoeta prozesu baten ostean erabaki zuten barnekotasuna lantzen hastea. Ikastetxe horietan erlijioa irakasgaia ematen badute ere, barnekotasuna eta espiritualtasuna aparteko langai gisa jorratzea erabaki zuten, alegia, erlijio orduetatik kanpo.

Argi zuten euren ikastetxeetako oinarri filosofiko eta pedagogikoa: pertsonaren heziketa integrala eta osoa lantzea. Eta horretarako aipatutako hiru dimentsio horiek kontuan harturik lanean hastea erabaki zuten, eta hala jarri zuten martxan barnekotasuna lantzeko *i-proiektua*. Egitasmo hori ikertu du Eli Egañak, eta bere esanetan, proiektuaren helburua da ikasleei hazten eta euren prozesu pertsonala garatzen laguntzea, horretarako hurbiltasuna eta afektu giroa sortuz. “Printzipio etikoak ere landu nahi dira, eta azken xede moduan, mundu humanoago bat lortu nahi da. *I-proiektuko* talde eragileko kideek dioten bezala, norberari bere gaitasunak garatzen irakatsi behar zaio, irakasleak eta ikastetxea horren laguntzaile izanik, eta ez eraikitzaile. Proiektuaren helburu finala litzateke ikasle zorientsuak, iritxidunak, kritikoa, arduratsuak, abegitsuak, laguntzaileak eta sortzaileak formatzen laguntzea”.

2012-2013 ikasturtean hasi ziren proiektua garatzen. Horretarako, ikastetxeko bi pertsona hautatu eta talde eragilea sortu zuten. Behin proiektuaren arduradunak zehaztuta, Espainiako Estatu ikastetxe guztietako talde eragileetako kide guztiek formazioa jaso zuten. Gero, arduradun horiek ikastetxeko errealiterako egokitutako proiektua erredaktatu zuten, baita garapenerako tenporalizazioa zehaztu ere. Bergarako ikastetxean, proiektuari indar handiagoa emateko asmoz, “barnekotasun taldea” sortu zuten —HHtik hasi eta Goi Mailako Zikloetara iritsi arte—, ziklo guztietako irakasleen partaidetza izateko, eta modu horretan proiektua aberasteko eta ikasleen beharretara hobeto egokitzeko.

Proiektua idatzi ostean, “Barnegunea” izeneko espazioa

sortu zuten ikastetxean eta saioei hasiera eman zieten 2013-2014 ikasturtean. Barnegunea *i-proiekturako* propio sortutako gela da, barnekotasun saioak egiteko bakarrik erabiltzen dena. Tatami antzeko lurra du, eta bertan mantak, kuxinak eta musika aparailua besterik ez dago. Oinetakorik gabe sartu behar da gelara eta espazioa intsentsuarekin girotzen dute saioa hasi aurretik. Egañak ondorioztatu duenez, espazio berezi gisa Barnegunea sortu izana oso garrantzitsua da ikastetxeko ikasle eta langile guztiak oso kontziente direlako espazio hori barnetasuna lantzeko bakarrik erabil daitekeela. “Ikasleak oso kontzientziatuta daude bertara doazenean zertara doazen eta horrek indar handia ematen dio proiektuari”.

Modu progresiboan joan dira proiektua ikastetxe guztian ezartzen, eta momentu honetan ikasle guztiek jasotzen dituzte barnekotasun saioak. Gainera, proiektua ikastetxe osoari dago zuzendua: ikasle, langile nahiz gurasoen parte-hartzea eta inplikazioa sustatu nahi izan dituzte. Ikasleek eta ikastetxeko langileek derrigorrez egin behar dituzte saioak; gurasoek, berriz, ez; guztiei eskaintzen zaie, baina borondatezkoa da. Barnetasun saioak “Barnetasun taldeak” prestatzen ditu, taldeko partaide bakoitzak bere ziklokoak, saioak hurren adin eta izaerara hobeto egokitzeko. Tutorari prestatutakoa azaltzen zaio saioa eman baino lehen, bera delako saioaren gidaria. Bere lehen saioa badu, talde eragileko kide bat egoten da bere ondoan, laguntza behar badu ere.

Saio bakoitzean hiru bloke lantzen dira: gorputz mugimendurekin eta kontzientzia korporalarekin hasten dira saioak; atal horretan salto, dantza, korrika, erritmo aldaketak, etabar lantzen dira, gorputzaren kontzientzia hartzeko helburuz. Ondoren arnasketa lantzeko ariketak egiten dituzte, “nola arnasten dugun kontziente izateko, bihotzaren taupaden kontzientzia hartzeko, lasai edo urduri gauden konturatze-ko...”. Amaitzeko, erlaxazioa eta meditazioa lantzen dituzte, masajeak emanaz, musikarekin erlaxazioa eginez, ariketa gidatuekin, bisualizazio ariketen bidez, mandalak eginez, marrazkian islatuz saioan jasotakoa...

Hilabetean behin barnekotasuna lantzeko saioak egiteaz gainera, han jorratutakoa egunerokotasuna ekartzeko saiakera ere ari dira egiten Mariaren Lagundia ikastetxean. Iazko ikasturtean *Lasaiunea* izeneko ekimena hasi ziren egiten geletan. Talde bakoitzak dagokion orduan eta une horretan klasea eman behar duen irakaslearekin egiten du. HHn arratsaldeko lehen orduan egiten da, LHn eta DBHn jolastordutik bueltan, eta GMHn lehen orduan egiten dute, 8etan.

## GAIA: BARNEKOTASUNA LANTZEN

*Lasaiuneak* irauten duen 3-4 minututan, musika jartzen da, argiak itzaltzen dira eta postura egokian jarrita (eserita, bizkarra zuzen eta oinak lurrean), gorputzaren kontzientzia hartu, lasaitu eta arnasketa ariketa batzuk egiten dira. “Ez da atsedean hartzeko momentu bat, lasaitzeko unea da eta arreta orainera ekartzekoa eta kontzentrazioa lantzekoa”.

Gela batzuetan, adinaren arabera, badute barnetasun saioekin lotura duen txoko bat ere; adibidez, ikasleak haserre daudenean gordetzeko aukera ematen diena, “Toki hori ikasleek aukeratzen dute; adibidez, irakaslearen mahai azpia izan daiteke”. Era berean, irakasleek kafe gelan barnekotasuna lantzeko txoko bat ere badute; bertan, esaldiak, proposamenak eta proiektuarekin zerikusia duten edukiak ipintzen dituzte. “Barnekotasuna eta berorren lanketa Barnegune barruan ez gelditzea eta bertan ikasi eta bizitakoak egunerokotasunean aplikatzea da helburua”.

Proiektuaren bilakaerari aztertzeko orduan, Mariaren Lagundiko talde eragileak argi du nola ikasleen hala irakasleen jarreraren bilakaera positiboa antzematen dutela. Gainera, ikasleei barnekotasuna lantzeko dinamika hasieratik gustatu

zaiela aipatzen dute. Egañak adierazten duenez, zuzendari-tza taldea ere oso inplikaturik egon da hasieratik eta baliabi-deak jarri ditu: irakasleei orduak eman horretarako, barnetasuna lantzeko espazioa sortu, formazioa... “Irakasleak, oro har, oso pozik daude proiektuarekin. Hasierako erresistentziak desagertuz joan dira eta azken saioetan barnekotasuna sakontasun maila handiz lantzea lortu dute. Bilakaera oso ona izan dute irakasleen saioek. Gainera, ebaluazioa egin zenean, irakasle gehienek aitortu zuten barnekotasun saioak egin eta gero lankideak beste modu batera ikustera igaro zirela”.

Proiektua martxan jarri zenetik bost urte igaro diren honetan, balorazio oso positiboa egiten dute talde eragileko kideek. “Oraindik urte gutxiko ibilbidea izan arren, ikasleen jarreraren garapena egon dela nabarmen antzematen dugu. Ikasleen arteko harremanak hobetu egin dira eta kideak pertsona gisa ikusten eta tratatzen hasi dira. Gatazkak kudeatzeko moduan ere ikusten dira aldaketa batzuk. Baina irakasleontzat ere oso erabilgarriak dira saioak, ikasleak beste modu batera begiratzen eta ikusten ditugu orain”.







Ezkerrean, Maria Eujenia Irazabal, eta, eskubian, Axun Mujika.

“Talde-lanean jardunez, aurrera egiten du proiektuak, eta eskola-komunitate osoari gauzak aldatzeko indarra ematen dio horrek”

# ELKARRIZKETA:

## MARIA EUGENIA IRAZABAL ETA AXUN MUJIKA

---

### ANTZUOLAKO ESKOLAKO IRAKASLEAK

30 urte baino gehiago daramatzate Irazabalek eta Mujikak Antzuolako eskolan lanean. Uneotan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko koordinatzaileak dira biak. Gauzak beste era batera egin daitezkeela erakutsi dute Antzuolan. Aldatuz joan dira, eta egunero eraikitzen ari den eredu bizi bat sortu dute.

**30 urte baino gehiagoko ibilbidea du Antzuolako Herri Eskolak. Hasiera hartan, harremanetan jarri zineten Psikomotrizitatearekin eta Konstruktibismoaren teoriarekin, eta, orduz geroztik, garaian garaiko pedagogietatik edanez joan zarete, eta erreferentzia bilakatu zarete beste eskola eta irakasle askorentzat. Zuen ustez, zein izan dira eredu bilakatzera eta horrelako proiektu sendo bat eraikitzen eraman zaituztetenen gako nagusiak?**

**Maria Eugenia Irazabal:** Gauzak aldatzeko gogo handia genuen talde bat elkartu ginen, eta, nire ustez, horixe izan zen ernamuina. Talde egonkorra zen, gainera. Eta aitortu behar da bai gurasoek eta bai herritarrek sekulako lana egin zutela, talde horren

egonkortasuna lortzeko. Eskola nazionalak eta ikastolak bat egin zutenean, gurasoek esfortzu handia egin zuten, hemengo irakasle taldea egonkorra izan zedin. Gogoan dut zenbat buelta egin zituzten Hezkuntza Ordezkaritzara, aurretik hemen geundenak hemen gera gintezen.

**Axun Mujika:** Izan zen beste gako bat ere: Bailaran, hezkuntza-arloan lanean hasi zen psikologoaren bulego bat. Hortaz, psikologo talde haren laguntza batu zitzaion hemengo irakasleek aldatzeko zuten gogoari.

**Zer ekarpen egin zion Antzuolako ereduari psikologo talde hark?**

**M.E.I.:** Psikologo haiek kabinetean egiten zuten lan ordura arte; euren kontsultan artatzen zituzten haurrak



eta gurasoak. Gurekin lanean aritu zirenak Manolo Cainzos, Xabier Tapia, Juanjo Quintela eta Jose Luis Irazabal izan ziren. Eskolan elkarlanean hasi ginenean, geletan sartzen hasi ziren. Ez zen erraza izan urrats hori egitea. Poliki-poliki, eredu berri bat eraikitzen hasi ginen.

Psikologo haien bitartez, Bartzelonako IMIPAErekin hasi ginen harremanetan. Unibertsitateko ikerketatalde bat zen IMIPAE. Beste eskola batzuekin ere lan egiten zuen. Urte askoko harremana izan dugu haiekin. Hori bai, ordu asko sartu ditugu gauzak ulertzeko eta gure lan egiteko modua aldatzeko.

### **Aldatzeko gogoz elkartu zineten irakasleen talde hark zer bilakaera izan du?**

**M.E.I.:** Pixkanaka egin dugu aldaketa. Erdiko ziklotik hasi ginen, eta ez irakasle guztiok batera. Toki guztietan egon ohi dira motor-lanak egiten dituzten pertsonak, gauzak aldatzera gehiago ausartzen direnak. Hala izan zen gure kasuan ere. Dena den, aldaketa ez zen batere erraza izan.

Imajina dezakezu nolako kezkak sortzen dituen “orain libururik gabe egingo dugu lan” esateak? Gainera, libururik ez edukitze horrek beste lan bat egitea ere eskatzen zigun, gurasoei irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesua nola garatuko genuen azaltzeko: matematika nola landuko genuen, hizkuntza nola jorratuko genuen... Etengabeko prestakuntza izan zen.

**A.M.:** Baina guretzat ez da inoiz zama bat izan prestatzea eta horretan orduak sartzea, alderantziz baizik. Premia sentitu dugu, eta prestatu egin gara. Bide horretan, teoria, praktika eta hausnarketa uztartzen saiatu gara: teoria ezagutzen hasi, hori praktikara eramanez, eta egindakoaren gainean gogoeta egin.

### **Jar dezakezue hasiera hartan egin zenituzten aldaketan adibiderik?**

**A.M.:** Irakurri genuen zenbait teoriaren arabera, ikasteko, egokiagoa zen talde txikietan lan egitea talde handian lan egitea baino. Beraz, probatzen hasi ginen. Era berean, jakin nahi genuen nola pentsatzen zuten hau-

rrek, eta horri buruzko informazioa jasotzen hasi ginen. Gero, saiakerak egiten genituen gelan, teoriatik jasotakoa geure begiekin ziurtatzeko.

**M.E.I.:** Horrez gain, baimena eskatu genien gurasoei ikasle talde bat psikomotrizitatea egiteko astean behin gurekin gera zedin, 16:30ean, beste haurrak etxera joaten zirenean. Izan ere, gurekin ari ziren bi psikologoak psikomotrizistak ere baziren, eta saioak egiten hasi ginen haurrekin. Irakasle batzuek zuzenean parte hartzen zuten haurrekin, eta besteok behaketa-lanak egiten genituen. Huraxe izan zen psikomotrizitatea zer zen ulertzeko eta ikasteko gure modua. Izan ere, saioa egin ostean, han gertatutakoaz hitz egiten genuen gure artean. Horrela, haurrak beste modu batean ulertzen hasi ginen.

**A.M.:** Beste adibide bat jartzearen, gure pentsatzen genuen haurrek *gorria* (kolorea) eta *biribila* (forma) ikasten zutelaren fitxak erabiliz: “biribila gorritz marraztu”...

Baina imajinatu psikomotrizitate-gelan xafila biribil bat behar duela haur batek, eta zuk berdea ematen





diozula; eta hark esaten dizu: “Ez, biribil hori ez; nik biribil gorria nahi dut”. Eta guk, agian, *biribila* eta *gorria* ikastea hurrengo hiruhileko programazioan geneukan planifikatuta.

Gauza batzuk formalki ikasi ez arren, badakizkite. Beraz, egoera naturalak erabiltzen saiatu ginen, irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuak aurrera eramateko.

### **Era naturalean ikastearen garrantziak jabetu zineten, hortaz.**

**M.E.I.:** Hori baino gehiago da. Guk pentsatzen genuen irakasleok irakasten genuela dena, eta, guk irakatsi ezean, umek ez zutela ikasten. Oso zabalduta zegoen hori irakaskuntzaren munduan. Poliki-poliki, gure ikuspegia aldatzen joan zen. Konturatzen hasi ginen, giza ingurune eta material egokiak eskainiz gero, haurra bere kabuz ezaguera eraikitze-ko gai dela. Ingurune hori hedatzen joan ginen progresiboki.

### **Beraz, aldaketak pixkanaka egitearen aldekoak zarete?**

**M.E.I.:** Bai, nire ustez, dena batera aldatzen badugu, egonkortasuna gal dezakegu. Aldaketak egiten hasten garenean, zalantza asko sortzen zaizkigu, eta, askotan, ziurtasuna bilatzen dugu: “Hau beharbada ez nuke horrela egin behar, baina honek ziurtasuna ematen dit, eta horrela egingo dut”. Baina horrek ez du esan nahi hor blokeatuta geratu behar dugunik. Umeei behatuz, asko ikasi dugu, eta baita lankide eta familiengandik ere. Besteekin batera lan egitean eta egingakoa partekatzean, aurrera egiten da. Talde-lanean jardunez, aurrera egiten du proiektuak, eta eskola-komunitate osoari gauzak hobetzeko indarra ematen dio horrek.

### **Aitzindariak izan zineten haur txikiak egokitzen diren garrantzia emate-rakoan: gurasoak gelara sarrarazten, haur bakoitzari bere beharren arabera denbora ematen...**

**M.E.I.:** Orain dela 35 bat urte hasi ginen horrekin. Oso gogoan ditut hasiera haiek. 2-3 urteko umek ikasturtea hasten zutenean, kaosa izaten zen. Eta izugarriko larritasunarekin

bizi genuen egoera hura.

Era berean, psikologo talde hura aldamenean geneukan, atxikimenduari buruzko teoriarekin. Haiek zioten, haurrak familiarekiko banaketa ondo egin zezan, erreferentziarako helduak eskolan egon behar zuela. Hori dela eta, gela ondoan gurasoentzat espazio bat jartzea erabaki genuen.

Ez zen erraza izan. Guztiz berria zen egoera hura: lehenengo aldiz, gurasoen eta lankideen aurrean ari ginen lanean. Zaila izan zen, baina oso aberatsa.

Gaur egun, oinarri berberei eusten diegu egokitzearen.

**A.M.:** Egia esan, 2 urtekoen gela asko mimatzen jarraitzen dugu guk. Gela horren ardurak irakasle berriren bati egokitzen zaionean ere, betere noren bat egon ohi da beti harekin. Haurrak 2 urterekin eskolan hasten direnean egiten dute familiek lehen kontaktua eskolarekin, eta oso garrantzitsua da harreman hori zaintzea. Oinarri hori ondo ezartzen saiatzen gara, eragina izango duelako ondorengo urteetan.

### **Eskolan kontuan izaten duzun lehen xedea haurraren ongizatea bertan da. Zer litzateke zehazki haurraren ongizatea zuentzat?**

**A.M.:** Haurrak sentitu behar du haren beharrak, desirak, gogoak... aseko direla, eta ziur izan behar du horretaz; era berean, geldiarazi edo eutsi egingo zaiela ere sentitu behar dute. Eta iruditzen zait gaur egun halako ezin ulertu bat dagoela ongizatea ulertzeko modu horretan, alegia, asetze eta euste horren arteko orekan. Haurrek eskertu egiten dute euste hori. Bi urteko umek dena “oraintxe” nahi dute, dena da “nik nahi dut” eta “berehala nahi dut”. Ume horri itxaroteko esan egin behar zaio: “Orain beste gauza honetan ari naiz, baina itxaron pixka bat, eta aurki naiz zurekin”. Esparru bat eskaini behar diegu haurrei, esparru seguru bat, pentsamendua bultzatuko duena.

Gure ustez, haurraren ongizaterako ezinbestekoa da errespetuz jokatzeko.

### **Antzuolako Herri Eskolaren esperientzia “eredu eraikitzailearen” baitan kokatzen dute adituek. Alegia,**

“Aldaketa ez zen batere erraza izan. Imajina dezakezu nolako kezak sortzen dituen ‘orain libururik gabe egingo dugu lan’ esateak?”

“Guretzat ez da inoiz zama bat izan prestatzea eta horretan orduak sartzea, alderantziz baizik. Premia sentitu dugu eta prestatu egin gara. Bide horretan, teoria, praktika eta hausnarketa uztartzen saiatu gara: teoriarekin ezagutzen hasi, hori praktikara eramanez, eta egindakoaren gainean gogoeta egin”

“Guk pentsatzen genuen irakasleok irakasten genuela dena, guk irakatsi ezean umek ez zutela ikasten. Poliki-poliki gure ikuspegia aldatzen joan zen”



**ez dago hain egituratuta eta programatuta sorburutik, eta egin ahala eraikitzen da, behetik gora. Horren erakusle da curriculuma zerbait bizi balitz bezala ulertzea. Bidea eginez eraikitzen den curriculumari buruz hitz egiten duzue. Azal dezakezue ideia hori?**

**A.M.:** Haur Hezkuntzan pentsamendua eta ekintza gauza bera direnez, ingurune material eta sozial bat jartzen dugu haurren eskura eta euren garapenaren mesedetan. Eta, ingurune horretan, curriculumaren zati bat jasota dago jada. Antzera jokatzeko LHko lehen zikloan ere. Ingurune materiala eta soziala prestatzen dugu irakasleok haurrentzat, eta ingurune horrek egokia izan behar du haurrak pentsamendua gara dezan. Ingurune horretan lanean ari direnean, bakarkako proiektuak edota talde txikitako proiektuak sortzen dira. Adibidez, eraikuntza bat egiten ari direnean. Izan ere, ingurune horietan dauden materialak ondo prestatuta eta pentsatuta daude, bada-kigulako nola bilakatzen den haurra-ren pentsamenduak, ikertu dugulako ekintzaren bidez nola doan eraikitzen euren pentsamendua. Zentzu horretan, zorrotz aztertu dugu testuinguru horretan helduon eginkizuna zein den

ere. Eta horretan jarraitzen dugu. Beraz, curriculumaren zati bat sartzen dugu jada hor, esan bezala.

Espazioetako lana amaitzen dutenean, talde bakoitza bere tutorearekin elkartzen da. Eta elkarrizketan jarduten dute: zer egin duten, zer egin nahi duten, zer interes dituzten, eskolatik kanpo nola dabilzan... Eta, elkarrizketa horietatik, talde osoko proiektuak sor daitezke. Proiektu txikiagoak edo handiagoak.

**Hortaz, umeekin hitz egiten da, eta haien interesetatik abiatuta egituratzen dituzue proiektuak?**

**A.M.:** Elkarrizketa horretan umeen desirak, gogoak, ezinak... azalartzen dira. Umeen interesak mundua ezagutzeko duten grinatik datoz. Adin txikietan, gorputz txikiagoa izango dute proiektu horiek, baina, pixkana, gorputzu egiten dira, eta indartsuagoak izango dira lehen mailatik aurrera: ikasleek eurek aukeratzen dute zer ikasi, baina jada proiektuen lanketek beste gorputz bat hartzen dute, eta ohiko irakasgai guztiak lantzen dira proiektu horien bidez. Proiektu horien fruituak *a posteriori* jasotzen dira, eta jaso ahala joaten da eraikitzen behin betiko curriculumara.

**M.E.I.:** Gaia garatzeko orduan,

hainbat arlok bete duten lekua edota izan duten garrantzia ikusten laguntzen digu jasotze horrek: arloen artean orekarik izan den, edota batzuek indar handiagoa izan duten... Hori kontuan izaten dugu hurrengo gaia planifikatzerakoan. Horrela, berezko curriculum bat osatuta dauka ikastalde bakoitzak 6. mailara iristen denerako. Hori da gurekin egiten duten azken ikasturtea. Gero, DBHra doaz, eta lanerako beste metodologia batean murgilduko dira han. Hori kontuan izanda, bi gauza egiten ditugu guk: batetik, curriculumara osatzeko garrantzia izan dezaketean gai edota arloak identifikatzen ditugu, eta horiek lantzen ditugu ikasleekin. Bestetik, hurrengo ikasturtean aurkituko duten lan-metodologia zeharo arrotza ez izateko, modu tradizionalagoan lan egiten dugu. Hori guztia, ikasle eta gurasoekin hitz eginda eta adostuta.

**A.M.:** Curriculumara dela eta, guk lan handia egin dugu hori aztertzen. Adibidez, espazioetan curriculumeko zer ukitzen den ikertzeko, banan-banan, espazio eta material guztiak curriculumean agertzen diren irizpideekin alderatzen jardun dugu guk gure etapan. Eta ondorio argia atera dugu: horrela lan eginda, curriculum-

mak eskatzen duena baino harago joateko aukera dute umeez. Bai prozedurei dagokionez, bai umearen autonomia moral eta intelektualari dagokionez ere.

**Hortaz, proiektu edo gai global horiek jorratzen dituzuen bitartean lantzen dituzue geometria, natura, literatura edota historia?**

**A.M.:** Bai, hala da. Eta, orain, proiektuetan txertatu ditugu espezialitateak ere. Ingelesekoek proiektuaren zati bat hartu, eta ingelesez lantzen dute; horixe egiten dute gorputz-adi-erazpenekoek eta abarrek ere.

**Lan egiteko modu horrek zer onura ditu? Zer abantaila dakartza?**

**M.E.I.:** Guk pentsatzen dugu horrela lan eginez haur bakoitzak bere erritmoan eta mailan lan egiteko aukera duela. Aurrean dugun haurra oso garrantzitsua da guretzat: errealitatea ikusi eta ulertzeko daukan modua, pentsatzen duena, sentitzen duena, pasatzen zaiona... Lan egiteko modu horrek kontuan hartzen du hori guztia.

**A.M.:** Ikasle horiek Bergarara joaten direnean, jakin-min handiarekin doazela esan izan digute, galdera asko egiten dituztela... Eta pozgarria da guretzat gogo hori izatea. Kontuan izan behar dugu hemengo ikasleek lan handia egiten dutela euren proiektuak sozializatzeko orduan ere. Beste ikasle batzuei, irakasleoi eta gurasoei esplikatzen diete egindako lana. Izugarritzko deszentratze-lana egiten dute hor, eta besteen aurrean hitz egiten eta azalpenak ematen ikasten dute.

**2 urteko gelan familiekiko harremana asko zaintzen duzuela esan duzue. Hortik aurrera, zer leku dute familiek Antzuolako Herri Eskolan? Nola erakitzen dituzue zubi horiek?**

**A.M.:** Adin horretatik aurrera ere, gurasoek geletan sartzen jarraitzen dute. Orduetegi malgua daukagu: 9etatik aurrera, edozein orduan sar daitezke. Goiz osoan daude hemen ateak zabalik, eta familia bakoitzak erabakitzen du noiz etorri. Hortaz, gurasoak gelaraino sartzen dira, haurrak adin jakin batera iritsi arte.

Une horretan, zuzeneko harremana daukagu gurasoekin, zaintzaileekin edo aitona-amonekin. Tarte hori oso garrantzitsua da gure ustez, gurasoek umearen eta familiaren inguruko informazio asko ematen digutelako. LHko lehen mailatik aurrera, etorrerak erregularizatu egiten dira: gehiengo gelan egon ohi da 9:00etan, eta horrela jarraitzen dute ondorengo ikasmailetan ere.

Gela barruan ere, tokia ematen diegu familiei zuzenean parte hartzeko, 2, 3, 4 edo 5 urteko seme-alabekin: ipuin bat kontatzera etortzen dira, instrumenturen bat jotzera, tarta bat egitera... Adin nagusiagoetan, berriz, ondoan izaten ditugu, gurasoren batek proiektuarekin zuzenean lotutako ekarpenen bat egin badezake ere.

**M.E.I.:** Proiektuekin lotuta, gurasoak ez ezik, aritu eta adituak ere ekartzen ditugu. Adibidez, orain dela gutxi, txirrindularitza lantzen aritu dira batzuk. Hortaz, herriko txirrindulari bat etorri da eskolara, bere esperientzia kontatzera. Eta baita beste herritar bat ere, bizpahiru hilabetean bizikletarekin kanpoan bidaiatzen ibili dena. Beti bilatzen dugu herriko jendearen parte-hartzea horrelako gauzak egiterakoan.

**Garaian garaiko legeen aurrean, zuek nola eutsi diozue zuen ereduari?**

**A.M.:** Guri beti gauza bera gertatu izan zaigu administrazioarekin: ez gara sartzen euren koadroetan; baina ez dugu aparteko arazorik izan. Gainera, orain dela hainbat urtetatik hona, gure proiektuarekiko interesa ere azaldu du. Beraz, lege bat edo bestea egon, guk, praktikan, beti eutsi diogu geureari. Izan ere, tresna bat garatua daukagu guk, Antzuolako eskolan egiten duguna defendatzeko eta horrek edozein curriculumi erantzun diezaiokeela erakusteko.

**M.E.I.:** Beste gauza bat ere erantsiko nioke horri: guk, hemen, ez dugu jasotzen ereiten duguna, hasi 2 urteko haurrengandik eta 12 urtekoengana iritsi arte ereiten duguna. Ereite horretan, ura botatzen dugu; belar txarrak kentzen ditugu... Baina, gero, noiz loratzen da hori? Bada, batzuetan 18 urterekin loratzen da.

**“Gai globaletan oinarrituz lan eginez, haur bakoitzak bere erritmoan eta mailan lan egiteko aukera du. Aurrean dugun haurra oso garrantzitsua da guretzat: errealitatea ikusi eta ulertzeko daukan modua, pentsatzen duena, sentitzen duena, pasatzen zaiona...”**

Beste batzuetan, 20rekin... Nik dakidana da sorpresa handiak hartu ditudala nire ibilbidean. Ikusi izan ditut hemen ume batzuk justu samar, eta pentsatu izan dut zailtasunak izango zituztela, eta gero jakin dut batek 20 urterekin jada bi modulu eginak dituela, edota beste batek bere gustuko lanbidea duela... Eta esaten duzu: “Guk ume honekin gure larritasunak izan genituen, baina begira nola egin duen aurrera...”. Eta sekulako poza ematen dizu horrek.

**Aurrera begira, zer erronka dituzue?**

**M.E.I.:** Alde batetik, eskola bikoiztu egin da, eta handitu egin dira kopuruak. Eta funtzionatzeko moduari beste dimentsio bat ematen dio horrek. Horrez gain, beste aldaketa bat ere gertatu da: gure ibilbidean, kohesio handiko talde bat garatu dugu, proiektuan sinesten duena. Orain, berriz, talde-lana zaildu egin da. Orduak direla, edo lanaldiak, murrizketak... Oso zaila da koordinatzea testuinguru horretan. Dugun erronka handiena eraiki dugunari eustea da, eta transmitzea.




# ESPERIENTZIAK

MUSIKA BIGARREN HEZKUNTZAN

## Interpretatu, inprobisatu eta sortu

DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin musika lantzeko metodologia berria jorratu du Arantxa Zubillaga musikako irakasleak, eta baita horretan laguntzeko musika-materiala sortu ere. Musika pieza beraren interpretazioan ikasle guztiak integratzen saiatu da: bakoitzak instrumentu bat edo beste jotzen du, norbere interesen eta mailaren arabera, guztien artean musika-lan bat interpretatzea lortzeko. Gelako ikasle guztiak parte hartzeko eta taldera ekarpena egiteko moduko abestiak prestatu ditu Zubillagak, eta, klaseko aniztasunari erantzun nahi izan dio hala: “Saiatu naiz ikasle guztiak taldean integratzen eta bakoitzari bere gaitasunen arabera jarduteko aukera ematen. Nire nahia da ikasle guztiak sentitzea obra bat sortzeko lanean ekarpena egiten ari direla, bai norbera eta bai besteak”.



**A**urrez bestelako musikako eskolak ematen bazituen ere, duela hamar urte hasi zen Arantxa Zubillaga eskola publikoan lanean. Akordeoiko goi mailako ikasketak eginak zituenez, Bigarren Hezkuntzan sartu zen. Lanean hasi bezain pronto ohartu zen sekulako aniztasuna zegoela geletan, era guztietako ikasleak zituela, eta argi zuela aniztasun horri nola edo hala erantzuna eman beharrean zegoela. “Laguntzailearekin datozenak, oso aurreratuta doazenak, zailtasun kognitiboak dituztenak, musika eskolara joaten direnak, joaten ez direnak... aniztasunaren abaniko osoa eduki ohi dugu musikako klaseetan. Nik hasieratik garbi izan dut ikasle guztiak integratu behar nituela gelan, eta beraz, ezin nuela guztiekin gauza bera eta aldi berean egin, baina era

berean, ikasle guztiak sentitu behar zutela taldeko kide zirela”.

Nola lortu, ordea, xede hori? Musikaren arloan badute materiala ikasle guztiekin gauza bera eta une berean jorratu ahal izateko; alegia, Zubillagak dioen modua, ikasle tipo batean pentsatutako bitartekoak badituzte, baina ikasle bakoitza bere ahalmenen arabera taldean integratzeko baliabideak falta dituzte. Hortaz, zer egin gelako aniztasunari erantzuteko eta ikasle bakoitzari bere ahalmenen arabera taldeko lanean parte hartzen duela sentiarazteko? Erronka horri heldu zion Zubillagak, eta hainbat instrumenturekin taldean interpretatzeko moduko abestiak sortu ditu, estilo, erritmo, neurri, konplexutasun... desberdinetakoak. **Hiru urteko lanaren ostean, Aranzubil argitaletxeak argitaratu du materiala eta [www.aranzubil.com](http://www.aranzubil.com) webgunean ere zintzilikatu du**, edonork eskura izateko moduan. Bereziki 1. DBHn lantzeko prestatu du materiala, nahiz eta 2. DBHrako ere balio duen — 1. DBHn bi ordu ematen dira astean; 2. DBHn ordu 1 astean; eta 3. DBHtik aurrera hautazko irakasgaia da musika —.

Oro har, eskolako musikako irakasgaien txirula ezta jotzen ikasi behar izaten dute ikasle guztiak, instrumentu erraza eta edonork ikasteko modukoa dela uste baita. Zubillagak, ordea, ez dio zentzu handirik ikusten horri: “Akaso badago ikasle bat txirula aspaldi ikasi zuena, eta, gainera, gitarra ere jotzeko gai dena. Hortaz, nik zertarako edukiko dut ikasle hori



klasean txirula jo eta jo? Zergatik ez diot aukera emango gitarra jotzeko edota beste instrumenturen batekin ere esperimintatzeko?”. Iazko ikasurtean klasean izan zuen autismoa duen ikasle baten adibidea ere jartzen du: musika pieza baten interpretazioan, perkusioa joz hartu zuen parte, klabea joz, hain zuzen ere; erritmoa barneratu eta inprobisatu egin zuen. “Zergatik eskatuko diot ikasle horri ere partiturak irakurri eta txirula jotzeko, ezin badu? Baina, era berean, badakit ikasle horrek ere gelan parte hartu behar duela, integratuta sentitu behar duela. Beraz, zer egin berak ere senti dezan klasean parte hartzen ari dela? Eta beste ikasleek ere senti dezaten, nahiz eta autismoa eduki, mutiko hori ere talde-lanerako ekarpen bat egiten ari dela?”.

Horrexegatik, edozein ikaslek obra baten interpretazioan parte hartu ahal izateko moduko materiala sortu du Zubillagak. Hala, 6 abesti prestatu ditu, txirularekin jotzeko ez ezik, bateriarekin, baxu elektrikoarekin, gitarrarekin, klabearekin, sintetizadorearekin nahiz panderetarekin ere interpretatzeko modukoak. Materialaren hasieran, instrumentu horietako bakoitzaren gaineko informazioa ageri da: nola jotzen den, zein zati dituen, eskuak nola jarri behar diren,

arnasketa eta garbiketa nola egin... Gero, abesti bakoitzaren gainerako edukiak datoz —bereziki irakasleak kontuan izan ditzan—: konpasa, zenbateko ekibalentzia duen, zer lan daitekeen abestiarekin, zein irudi agertzen diren, zer tesitura jorratzen diren... Ondoren, aipatutako instrumentu guztiak barne hartzen dituen partitura osoa ageri da materialean, irakaslearentzat prestatua. Eta, gero, instrumentu horietako bakoitzarentzat partitura bana jasotzen da, ikasle bakoitzari berari jotzea tokatzen zaion instrumentuaren partitura soilik eman ahal izateko. Zubillagak sortu dituen 6 abestietan, garapena ageri da: abestiek eboluzioa dute samurrenetik hasi eta konplexuenera bilakaera egiteko. Gainera, behin oinarria sortuta, hasiera batean partituretan sartu gabeko beste edozein instrumentu txertatzeko aukera ere ematen du.

Instrumentuen eta abestien informazioa nahiz partiturak prestatzeaz gainera, audioak ere egin ditu Zubillagak bere anaia musikariaren laguntzarekin. Hala, ikasleek partiturak nola interpretatu jakiteko informazio zehatza daukate. Azken batean, denek batera jo ahal izateko abesti oso zailak ez egiten saiatu dira, baina aldi berean, interpretatzeko atseginak izaten. Hala, gelako aniztasun guztia

kontuan hartuz, denek batera taldean lan egitea lortu du irakasleak. Eta horixe da ikasleak ebaluatzeko orduan kontuan izaten duena ere: ikasle bakoitzak taldeari zer aportatzen dion behatzea. “Bakoitzak egiten du bere lana, baina gero lan hori taldeari ematen dio eta bakoitzak egiten duen ekarpen horretatik sortzen da azken emaitza. Eta ebaluaziorako ere hori izaten dut kontuan”.

### **Sormena lantzeko ere proposa**

Materiala sortzerako orduan, eta audioak egiterakoan, ikasleei sormena lantzeko eta inprobisatzeko aukera irekita uztea ere oso kontuan izan du Zubillagak. Horrexegatik, audio batean abestiaren oinarria soilik grabatu dute sintetizadorea, gitarra, baxua, bateria edota beste instrumenturen bat erabiliz, baina ez dute txirularik sartu. Hortaz, audio horren gainean, eta partiturarik aurrean izan gabe, ikasleek instrumentua hartu eta inprobisatzeko aukera dute: “Doinuak errazak eta sinpleak direnez, hasieran kostatzen zaie, baina probatu eta probatu, oinarri horren gainean instrumentuak jotzea lortzen dute. Musika sortzeko gai direla ikusteak sekulakoa da ikasleentzat. Aukera emanez gero, izugarriko lanketa egiten dute”.

# EKARPENAK

ADIMEN EMOZIONALA ESKOLAN

## Etorkizuneko osasun mentala sustatuz

**G**aur egungo haurrak gure herriaren etorkizuna izango dira, eta garrantzitsua da esku-hartze goiztiarrak egitea beren garapen emozional egokia bultzatzeko. Eskolan adimen emozionalari gero eta garrantzi handiagoa ematen bazaio ere, oraindik lan handia dago egiteko.

Hautzarotik umeak emozioen garrantziaz kontzientziatzen baditugu eta horiek ondo maneiatzen irakasten badiegu, etorkizunean zailtasun emozional gutxiago izango dituzte. Hautzaroa garai aproposa da eduki horiek barneratzeko, eta etorkizuneko zailtasun emozionalei aurre egiteko aukera izan daiteke. Heziketa emozionala onuragarria da bai beren bizitza pertsonalerako, eta bai beren bizitza profesionalerako ere. Familian, eskolan eta gizartean egin behar dira heziketa honetarako esku-hartzeak, gizartearen osasun mentalean eraginkortasuna izan dezaten.

Esku-hartze horien onurak momentuan eta etorkizunean ikusiko dira, haurren jokabide prosozialak bultzatuko dituztelako, eta bizi-tzako erronkei errazago aurre egiten ikasiko dutelako. Arazo emozionalak baldin badituzte, eskolan porrota izan dezakete, edo eskola utz dezakete; eta, kasu batzuetan, jokabide antisoziala izan dezakete edo baztertuak

**Naiara Ozamiz  
eta Sonia Ruiz  
de Azua**

EHUko  
Medikuntza  
eta Erizaintza  
Fakultateko  
psikiatria-  
eremuko  
irakasleak

izan daitezke. Horregatik, esku-hartze goiztiar hauen bidez aurre egin dakieke etorkizuneko arazoei, eta horrek onura handiak ekar ditzake umeentzat eta gizartearentzat. Eskolako irakasleek, irakaskuntza emozionala irakasten badute, aurre egingo diete etorkizuneko langabezia-arazoei eta osasun mentaleko arazoei (*The Government Office for Science*, Londres, 2008).

Eskola, beste testuinguru batzuen artean, oso esparru garrantzitsua da umearen garapen emozionalerako eta haren nortasunaren eraikuntzarako (Rich Harris, J. 2003). Lan honetan, eskolako emozioen lanketari buruz hitz egingo da.

### **Adimen emozionala**

Orain arte, pertsona baten adimenari buruz hitz egitean, haren koefiziente intelektuala hartzen zen kontuan. Gaur egun, ordea, adimen emozionalari ere garrantzia ematen zaio, pertsona baten zorientasuna edo arrakasta guztiz lotuta baitago emozioekin (Sanz Marin A. 2002).

Baina, zer da adimen emozionala? Adimen emozionala da gure sentimenak ezagutu eta erabiltzeko edo besteen sentimenduak interpretatzeko aukera ematen digun trebetasuna (Aierdi A., Ezeiza B., eta Goikoetxea K. 2010).





Goleman psikologoaren arabera, adimena eta emozioak bateragarriak dira, orekan daudenean (Goleman D, 1996). Oreka horretan, adimenak emozioak kontrolatu eta bideratu egiten ditu, emaitza arrakastatsuak lortu ahal izateko.

#### **Adimen emozionalaren gaitasun-esparruak eskolan lantzeko beharra**

Daniel Golemanen adimen emozionalari buruzko liburuan, adimen emozionalari aitortu zaizkion trebetasunei begira, ondorengo lerroetan agertzen diren helburuak aipatzen ditu (Goleman D, 1996). Helburu horiek aipatzearekin batera, beroiek eskolan barnerratzeko garrantzia azpimarratuko dugu.

- **Norberaren emozioen eta horien adierazpenaren kontzientzia**

Emozioa agertzen den unean bertan ezagutzeko trebetasuna da. Adimen emozionalaren oinarria da. Gure emozioak ezagutzen baditugu, horiek kontrolatzeko aukera izango dugu, eta, horretarako, emozioei izena jarri behar zaie.

Kontzientek ez diren emozioek traizio egiten digute; kontrolatzen ez baditugu porrot egin dezakegu. Emozioak hautemateak lotura estua du osasunarekin, gainera.

Eskola esparru oso egokia da alfabetizazio emozionala irakasteko (Segura Morales 2007), eta alderdi hori lantzeko hainbat pauso eta jarduera egin daitezke.

Hasteko, alderdi emozionala behar adina garatu gabe duten kasuak hauteman behar dira. Emozioak lantzen hasi aurretik, beharrezkoa da gai horri buruzko aurrezagutzak zein diren haztatzea. Horrela, ikasleek beren emozioen kontzientzia hartuko dute, horiei izena ipiniz, eta ikaskideekin eztabaidatuz. Irakaslearentzat ere sarrera egokia izan daiteke, ikasleen jakintza-maila aztertzeke, eta bakoitzak izan ditzakeen zailtasunak hautemateko.

Ondoren, garrantzitsua da emozioak sailkatzen eta diskriminatzen irakastea, horretarako egoera bakoitzak emozio bat sor dezakeela irakatsi ahal zaie, eztabaidak sortuz, eta ondorioz, ikasleek emozioak diskriminatzen ikas dezakete.

- **Autoerregulazioa**

Emozioak kontrolatzea ondorio negatiboak saihesteko trebetasuna da. Haserre zaudela konturatzen bazara, horrek sor ditzakeen ondorio negatiboak saihestu ditzakezu.

Emozioen intentsitatearen arabera, erantzun desberdinak behatzea da lehenengo helburua. Ikasleak ikas

dezake, hasteko, emozio beraren barnean intentsitateak egon daitezkeela. Ondoren, egoera desberdinen aurrean izandako emozioen ondorioz nola jokatzeko duen eta nola joka daitekeen hausnar dezake. Askotan, emozioak oso intentsuak direnean, aurrerago damutu daitekeen modu batean joka dezake batek, eta, hori ez gertatzeko, egokia izan daiteke umeekin egoera horiei buruz hitz egitea eta alternatibetan pentsatzea. Eztabaida horiek izan ondoren, umeak modu egoekiagoan jokatzeko ikasiko du halako egoera baten aurrean.

Ikus dezagun bere emozioak kontrolatzen ikasi zuen ume baten hausnarketa:

«Ez dut leiho hori apurtu behar. Ez dut beti bezala jokatzeko jarraitu behar. Ez ditut bururatzen zaizkidan gauza guztiak egin behar. Ez dut jendea jo behar, hori egitea sentitzen badut ere. Suposatzen dut hau gertatzen zaidala lehen ez nekielako haserrealdiak pasatu egiten direla, eta haserrealdiak pasatu ondoren pozik senti naitekeela. Alda naiteke. Ez naiz beti berdina izan behar, desberdina izan naitekeelako. Orain ulertzen dut, nire sentimenduak ulertzen ditudalako!» Harold 8 urte. (Schaefer C. 2011).

Haurtzarotik autoerregulaziorako oso egokia izan daitekeen beste modu bat da **erlaxazioaren bidez emozio-**



**ak kontrolatzen ikastea.** Gaur egun, umeeek estresa pairatzen dute, estimulu ugari baitaude haien inguruan (De Rivera, Luis 2010). Horregatik, garrantzitsua da erlaxatzen ikastea, eta egunero klasean erlaxazio-tekniak praktikatzea. Hori onuragarria izan daiteke ikasleen egoera emozionalerako, klaseko giroerako, eta haien errendimendu akademikorako ere. Erlaxatzean, onura fisiologiko, konduktual eta kognitiboak lortzen dira. Erlaxatzean erabaki egokiak hartzen dira, hobeto sentitzen gara, eta besteen ahaleginak hobeto balioesten dira. Horregatik, oso garrantzitsua da erlaxazioa esperimentatzea eta emozioak bideratzeko duen balioa sustatzea.

Erlaxazioa ikasle guztientzat da interesgarria, batez ere, ikasle urduri, oldarkor, beldurti eta segurtasunik gabekoentzat. Erlaxazioaren helburua da ikasleak baretzea eta, horrela, emozioak kontrolatzea (Latineri L. 2009).

- **Baikortasuna eta motibazioa**

Gure buruan konfiantza izateko ahalmena da. Pertsona batzuk baikorrak izaten dira; beste batzuk, ordea, ezkorrak. Horrek ez du esan nahi hori alda ezin daitekeenik; praktikaren bitartez, eta emozioak landuz, jarrera alda daiteke.

Horregatik, lehenengo pausoa litzateke **nork bere balioak aitortzea eta onartzea, besteen balioekin konparatzen ibili beharrik gabe.** Gaur egungo eskola-sistemak lehiakortasuna bultzatzen du noten kalifikazio-sistemeekin. Garrantzitsua da ume bakoitzak jakin dezala bakarra eta baliotsua dela, eta bakoitzak bere gaitasunak dituela, eta hori dela azken batean garrantzitsuena. Ken Robinson-ek esaten duen bezala, bakoitzak bere «elementua» aurkitu behar du, hau da, bere gaitasuna, zailtasunik gabe eta atseginez egiten duen jardura (Robinson K. 2014).

Ondoren, **norberaren burua ezagutzea** da garrantzitsua. Gure burua balioesteko, ezinbestekoa da norberaren burua ezagutzea, gustuak identifikatzea, eta gure ahalmenak eta berezitasunak ezagutzea. Horregatik, ikasleek, beren gaitasun positiboak azpimarratzen ikasi behar dute.

Azkenik **bizitzan jarrera positibo hartzen** ikastea ere garrantzitsua da. Horretarako, ikasleei autoestimua indartzen irakatsi behar zaie pentsamendu irrazionalak arrazionalengatik ordezkatzuz. Pentsamendu irrazionalak hautematen ikasten badute, eta pentsamendu arrazionalekin ordezkatzeko ikasten badute, antsietate-, estres- eta tris-tura-egoerei aurre egin ahal izango

diete modu oso egokian.

- **Enpatia eta besteenganako konfiantza**

Enpatia besteen emozioak hautemateko gaitasuna da, hau da, besteen lekuan jartzeko ahalmena. Aurrean daukagun pertsonaren sentimenduak ulertzeko gaitasuna badaukagu, harreman hobea edukitzeko aukera izango dugu.

Beraz, lehenengo pausoa litzateke **enpatia zer den ulertzea**, besteak senti dezakeena aztertzen ikasi behar dute, eta bakoitzak bizipenak modu batean bizi dituela ikasi dezakete. «Enpatia da beste pertsona batzuen zapatak janztea eta haiekin ibiltzea». Enpatizatzen ikasten hasten badira, klaseko giro osasuntsuagoa sor daiteke, besteek bizi dituzten emozioak ulertuz eta harreman osasuntsuagoak sortuz.

**Gorputzaren mintzaira ezagutzea** ere oso garrantzitsua da enpatiarako. Besteekin komunikatzerako orduan, ez-ahozko komunikazioak ahozkoak baino askoz gehiago esaten digu. Ez-ahozko komunikazioak komunikazio-informazioaren % 93 ematen digu. Ikasleak kideen ez-ahozko komunikazioak esaten duenaz ohartzen badira, hobeto ulertuko dute komunikatzen ari direna, eta, modu horretan, errazago enpatizatuko dute.

Eta, azkenik, ondo entzuteko estrategiak ezagutzea ere ezinbestekoa da enpatia lantzerako orduan. Komunikatzea ez da bakarrik hitz egitea, baizik eta entzuten jakitea ere bada. Ikasleei entzutearen garrantzia irakatsi behar zaie etorkizunerako oso baliagarria izango zaien gaitasuna.

#### • Jendetasuna

Besteen emozioez ohartzen garen neurrian, hobeto kontrolatuko dituguk transmititzen ditugunak.

Hasteko, inori ez zaio gustatzen kritika bat jasotzea, baina ikasi behar dute badaudela kritika eraikitzaileak eta kritika suntsitzaileak. Horien artean bereizten ikasi behar dute, eta **besteen kritiken aurrean erantzun egokia ematen** ere bai.

Bestalde, umea haziz doan heinean, autonomia garatuz joango da, eta lehen gurasoek erabakitzen zutena orain berak erabaki beharko du esparru askotan. Horregatik, askotan galdurik senti daiteke jendartearen gertatzen diren hainbat egoeraren aurrean, eta garrantzitsua da **erabakiak hartzen ikastea**. Horretarako, lagunen artean gerta daitezkeen hainbat egoera gatazkatsuren inguruan eztabaidak egin daitezke klasean, egoera horiek sarritan agertuko zaizkielako ikasleei beren bizitzan zehar, eta aurretik horren inguruan hausnarketa bat egiten badute, hobeto jakingo dute nola jokatu egoera horien aurrean, beren eskubideak errespetatuz eta besteei minik egin gabe.

Azkenik, adimen emozionalaren puntu garrantzitsua da **pertsonen arteko gatazkei aurre egitea**. Arazoei aurre egin behar zaie, eta horiei aurre egiteko estilo desberdinak daudela irakatsi dakieke. Harreman sozialetan izaten diren hiru estilori buruz hitz egin daiteke beraiekin. Estilo pasibo, asertibo eta oldarkorrari buruz, alegia.

#### Ondorioak

Gaur egun dagoen depresio- eta antsietate-prebalentzia altua kontuan izanik, Europa mailan gero eta garrantzi handiagoa ematen ari dira osasun mentalaren prebentzioari. Haurtzaroan eta nerabezeroan antsietate- eta depresio-sintomak hasten baldin badira, eta ez badira modu

egokian bideratzen, etorkizunean asko larriagotu daitezke sintoma horiek. Hainbat ikerketek ondorioztatu dute, haurtzaroan eta nerabezeroan osasun mentalean esku hartzen bada, etorkizuneko gaitz mentalak gutxiagotuko direla (Zenzinger 2003). Beraz, artikulua honetan, eskolan emozioak eta osasun mentala lantzeko garrantziari buruz hitz egin da. Hala ere, beste hainbat esku-hartze eskolatik kanpo egin daitezke. Batez ere, etorkizunean gaixotasun mentalak pairatzeko probabilitatea duten umeengan. Hala nola, gaixotasun mentala izan duten gurasoen umeengan, edo haurtzarotik gaixotasun mentalen sintomak izan ditzaketen umeengan.

#### Esker onak

Mila esker Lehen Hezkuntzan urte askoan irakasle izan diren Irune Etxebarriari eta Mari Jose Ucarri, lan honi buruzko orientazioa emateagatik. Eskerrik asko EHUKo Euskarearen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzari ere euskara zuzenketak egiteagatik.

#### Bibliografia

1. Aierdi, A., Ezeiza B., eta Goikoetxea K. (2010). Adimen emozionala. Beste hizkuntza bat. HIK HASI. 147. (12-15)
2. De Rivera, Luis (2010). Los síndromes de estrés. Síntesis.
3. Goleman, D. (1996). Inteligencia emocional. Kairos.
4. Lantieri, L. (2009) Inteligencia emocional infantil. Aguilar.
5. Rich Harris, J. (2003). El mito de la educación. Debolsillo.
6. Robinson, K. (2014) Finding Your Element: How to Discover Your Talents and Passions and Transform Your Life. Penguin books.
7. Sanz Marin, A. (2002) ¿Quiere alguien explicarme que es inteligencia emocional? Hobby.
8. Schaefer, C. (2011). Foundations of play therapy.. John Wiley & Sons, Inc, Hoboken.
9. Segura Morales M. (2007). Educar las emociones y los sentimientos. Narcea.
10. The Government Office for Science, Londres. (2008). Foresight Mental Capital and Wellbeing Project. Final Project report.
11. Zenzinger, K. (2003). Children, Adolescents and Young People (up to 24 years). Federal Institute for Occupational Safety and Health. Mental Health Promotion and Prevention Strategies for Coping with Anxiety, Depression and Stress related Disorders in Europe Final Report.

“Garrantzitsua da ume bakoitzak jakitea bakarra eta baliotsua dela, eta bakoitzak bere gaitasunak dituela, eta hori dela azken batean garrantzitsuen”

“Gure burua balioesteko, ezinbestekoa da norberaren burua ezagutzea, gustuak identifikatzea, eta gure ahalmenak eta berezitasunak ezagutzea. Horregatik, ikasleek beren gaitasun positiboak azpimarratzen ikasi behar dute”

“Gaur egun dagoen depresio- eta antsietate-prebalentzia altua kontuan izanik, Europa mailan gero eta garrantzia handiagoa ematen ari dira osasun mentalaren prebentzioari”



# PEDAGOGO SORTZAILEAK

## REBECA ETA MAURICIO WILD: bizi-kalitatearen ametsa, hezkuntza aktiboaren iturburu

*Pedagogo sortzaileak* izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskurik. Rebeca eta Mauricio Wilden inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan laugarrena.

**A**lemanian jaio zen Rebeca, eta, haurtzaroan, Bigarren Mundu Gerra bizi izan zuen bere familiarekin, Berlinen. Mauricio, berriz, Ekuadorren jaio zen. Guraso suitzarren semea zen, eta, 12 urte zituela, Suitzara joan zen ikasketekin jarraitzera. Suitzan ongi egokitu ez zenez, Europan zehar bidaiatzeari ekin zion 18 urterekin, eta hizkuntzak ikasi zituen. Rebeca eta Mauricio gazteek turismo-gidari lanetan ezagutu



**Miren Camison**

Haur filosofian  
aditua

zuten elkar, Alemanian, eta bikote-harremanari ekin zioten, elkarrenganako erakarpenak eraginda. Bikote-harremana sendotzen joan zen, eta, 1961ean, elkarrekin Ekuadorrera joatea erabaki zuten, askatasun handiagoan bizitzeko ametsari jarraituz, norbera izaten ikasteko eta bizi-kalitatea bilatzeko.

Lehenengo semearen jaiotzak hainbat inflexio-puntu bat adierazi zuen; hainbat urtean beraien intereseko kontuetan ibili ondoren, etxeko txikia gai izan zen gurasoen ohiturak, eguneroko planak eta iritziak desegiteko, bikote gazte askori gertatzen zaien moduan. Egun batean, lagun batek Maria Montessoriren liburu bat eman zion Rebecari irakurtzeko, eta, hortik aurrera, aldatzen hasi ziren bikoteak haurtzaroari buruz zuen ikuspuntua eta bien haziera-estiloa: konturatu ziren gurasoek egokitu behar dutela seme-alaben beharretara, eta ez alderantziz; eta, haurraren garapenerako eta haurrak bere burua hezteko duen gaitasunerako, funtsezkoa dela helduek haurren benetako beharrak asetzeari.

Aurkikuntzok bultzatuta, Maria Montessori hezkuntza-metodoaren arloko prestakuntza jaso zuen Rebecak.

Ildo horri jarraituz, semea egoki garatzeko giroa prestatu zuten



Rebeca eta Mauricio Wild ikasle-talde batekin.

etxean, eta, herrian, haur hezkuntzako Montessori eredu eskola txiki bat sortzen lagundu zuen Rebecak. Semeak sei urte bete zituenean, lehen hezkuntzako herri-eskolan hasi zen, Wild bikoteak garai hartan artean ez zuelako zalantzan jartzen hezkuntza-sistema.

Handik bi urtera, bigarren semea jaio zen, eta seme txikiaren garapen-beharrak asetzeko prestatu zuten etxeko giroa berriro; gainera, atek zabaldu zizkieten hezkuntza mota horretan interesa zuten familiei. Horrelaxe sortu zen, **1977an, Haur Hezkuntzako Pestalozzi Eskola Alternatiboa**. Oinarrian, Montessoriren ekarpenak erabiltzen zituzten, modu aske batean, metodoa baliatu gabe. Garai horretan, hezkuntza-sistema zalantzan jarri zuten bere osotasunean, bi semeen eskola-esperientziak erkatu ondoren; kontraste nabarmena zegoen seme txikiaren alaitasunaren eta aurkikuntzak egiteko grinaren eta seme nagusiaren interes-galtzearen

artean. Gauzak horrela, eskola uzteko aukera proposatu zioten seme nagusiari, eta, hamabi urte zituelarik, deseskolatu egin zuten.

1977. urtean hasi zen PESTALOZZI Eskola Alternatiboa, eta 2005ra arte iraun zuen. Eskolako adin-tartea zabaltzen joan zen, 3 urtetik 18 urtera irits arte, haurren eta familien beharrei erantzuteko. Ekuadorko Hezkuntza Ministerioak 1989an legeztatu zuen, izenburu bitxi honekin: “eskolarik ematen ez den oinarrizko eskola ekuadortarra, bederatzi urtekoa”.

#### HEZKUNTZA AKTIBOA:

**Bizi-prozesuak errespetatzen dituen hezkuntza**

**Gurasotasuna abiapuntu.**

Semeen hazieran izandako esperientziak eraman zuen Wild bikotea beraien egiteko modua familia gehiagorekin partekatzea eta, gero, Pestalozzi eskola alternatiboa sortzera.

#### Familiaren eta eskola alternatiboaren arteko koherentzia

Ezinbestekoa iruditzen zitzaion Wild bikoteari bat etortzea eskola aktiboko bizi-prozesuekiko errespetuzko hezkuntza eta familia bakoitzak duen haziera-estiloa, haur eta gazteak modu koherentean egituratu ahal izateko. Gurasoen ardura nagusietako bat da seme-alaben hazieran konpromisoa hartzea. Irizpide horri jarraituz, Pestalozzi goizez soilik irekitzen zen, lau orduz besterik ez, gainerako denbora haurrek euren familiarekin igarotzeari ematen zioten garrantziagatik. Pestalozzin, prestakuntza-ikastaroak eta taldeko bilerak izaten zituzten familiek, seme-alabak ahalik eta koherentzia eta errespetu handienarekin hazi eta hezi ahal izateko.

#### Haurra errespetatzea haren beharrak asetzeko da

Haur eta gazteen oinarrizko beharrak aldatzen doaz garapen-etapa bakoitzean, eta, kalitatezko bizi-es-

“Kalitatezko bizi-  
esperientziarekin  
hazteko, ezinbestekoa  
da horiek identifikatzea,  
entzutea, errespetatzea  
eta asetzea”

“Hezkuntza aktiboan  
konpromisoa  
hartzen da hazten ari  
diren organismoen  
bizi-prozesuaren  
kalitatearekin, hau  
da, haien benetako  
beharrak aseko dituen  
errespetuzko ingurua  
sortzearekin, haur eta  
gazte bakoitzak berezko  
gaitasunak gara ditzan”

“Pestalozzi eskolan  
bakoitzak bere behar  
primitiboak asetzeko  
askatasuna dauka.  
Daukatenarekin zer  
egin nahi duten erabaki  
behar dute etengabe,  
eta zerekin, zeinekin eta  
zenbat denboraz ikasi  
nahi duten”

perientziarekin hazteko, ezinbestekoa da horiek identifikatzea, entzutea, errespetatzea eta asetzea. Hori oso lotuta dago jasotzen duten maitasunaren kalitateak jatorrizko beharrak asetzerekin. Asetzen ez diren neurrian, mina eta sufrimendu-egoeren bizipena ekarriko dizkio garatzen ari den organismoari, eta konpentsazio-egoeren bilaketa, berriz, helduari.

“Haurrekin bizitzeak behartu egiten gaitu guk ase gabe ditugun beharrei (iraganarekin lotzen gaituztenei) edota gure seme-alaben oraingo beharrei arreta handiagoa jarriko diegun erabakitza, azken horiek ematen digutelako gure etorkizunerako giltzarria.” (Wild, 2007).

Beste idatzi baterako gaia litzateke argitzea hazierako etapa bakoitzean ezinbestez zein *oinarrizko behar* errespetatu behar diren.

Hezkuntza aktiboan, konpromisoa hartzen da hazten ari diren organismoen bizi-prozesuaren kalitatearekin, hau da, haien benetako beharrak aseko dituen errespetuzko ingurua sortzearekin, haur eta gazte bakoitzak berezko gaitasunak gara ditzan; eta hor sartzen da irakasle bidelagunen egoteko modua ere.

Baina nola errespetatu bizi-prozesuak? Lehenik eta behin, *bizitzaren* funtsa eta xedea ezagutu beharra zutela ikusi zuten wildarrek.

### **Zer da bizitza? Nola errespeta daitezke bizi-prozesuak eskolan?**

Bizitza zen Wild bikotearen oinarrien muina. Ezagutza biologikoan ardatzen zuten beren pedagogia teorikoa eta praktikoa: Lur planetaren eboluzioan, bizitzaren garapenean, jatorrizko zelularen funtzionamenduan. Zelula da organismo bizien oinarriko egitura, eta gizakiok zelula anitzeko organismoak gara. Lege biologiko berek gobernatzen gaituzte.

Bizitzaren eboluzioan, **jatorrizko zelularen** barne-egitura konplexuak mintz erdi-iragazkor bat sortu zuen kanpoaldetik bereizteko, eta, horri esker, barrualdetik doitu dezakegu ingurunearekiko elkarrekintza.

Zelularen barruan, kanpoaldean dagoena hautemateko gaitasuna dago, bai eta ingurunetik zer hartu eta zeri utzi sartzen balioesteko eta eraba-

kitzeko gaitasuna ere; organismoak iraun dezan eta gara dadin egokia dena soilik hartuko du horrela. Berezko adimen hori ez dator *planifikatutako curriculum* batetik; aitzitik, bizitza organikoaren hasieratik berez gauzatzen den prozesua da.

Bitzaren beste lege biologiko garrantzitsu bat Humberto Maturanak eta Francisco Varelak adierazitako **autopoiesi** kontzeptuari dagokiona da: *bizirik dagoen organismoak bere burua garatzen du*. Organismoak barrutik zuzendutako ekintza espontaneo guztiek (kanpotik zuzendu gabekoek) aktibatzen dute organismo horren autoegituratzea.

### **Zuzentzen ez duen pedagogia**

Lege biologikoak kontuan hartuta, ondorioztatu zuten garatzen ari diren organismo bizientzat kaltegarriak izan daitezkeela kanpoko interferentziak, organismoaren barne-koherentzia eta egitura errespetatu gabe, kanpotik nahitaez zerbait sarrarazi nahi denean.

Haurrak garatzen dituen ekintza espontaneo guztiei esker, bitzaren zentzua aurki dezake haurrak, eta munduan kokatzen eta autoegituratzen lagunduko zaio, modu natural batean. Eta, aldi berean, benetako ulermena, autonomia eta autoestimua garatuko ditu barrutik, modu sortzaile batean.

Haurrak kanpotik gidatu eta motibatu ordez, pedagogia-paradigma berri bat proposatzen dute: barrutik zuzendutako ekintzek ingurunearekin duten elkarrekintza errespetatzea eta ahalbidetzea, eta horien garapenerako espazioa egokiak sortzea. Pestalozzin, irakasle bidelagunek giro egokia eta kalitatezko presentzia eskaintzen dituzte, haur bakoitzak duen ahalmen guztia gara dezan.

### **Barne-curriculum**

Kulturak iradokitzen duen curriculumaz gain, haurren barne-curriculum errespetatzea nahitaezkoa zela zioten wildarrek. Beraien praktika pedagogikoan, *curriculum hirukoitza* abiarazi zuten: oinarrian, umearen interes pertsonalaren curriculum zegoen (barrutik gidatutako ekintzak ingurunearekin elkarrekintzan);





Rebeca eta Mauricio Wildek sortu zuten León Dormido proiektu integral komunitarioa ageri da argazkian.

bigarrenik, garapen-etapen curriculuma (ezinbestekoa etapa bakoitzean ulermena garatzeko eta ezagutzak asimilatze) eta, azkenik, kultura orokorrean progresiboki parte hartze-ko curriculumua.

### Giro prestatua PESTALOZZI eskola aktiboan

Pestalozzi eskolan ez da eskolarik ematen; ez dago ikasketa-programaziorik; ez da ikasgai zatikaturik ematen ordutegi finko batean; ez dago azterketarik edota kalifikaziorik, eta haur eta nerabeek ez dute aukietan eserita egon behar mahai aurrean, heldu batek zer egin behar duten esaten dien bitartean. Irekita daude eskolako espazio guztietako ateak, haur eta gazteak nahi dutenean sartu eta irten daitezten. Haien barne-eritasun eta ekintza espontaneo eta autonomoek gidatuko dituzte beren bizi-esperientziak, jolasak, esperimentazioak, galderak, erritmo biologikoa, ikasketa operatiboa, pentsamendu interkonektatua eta egituratze intelektua zein afektiboa.

Barne-curriculumua eta kanpotik haurraren ekintzak zuzentzen ez

dituen pedagogia kontuan hartuta, haurraren ekintza espontaneoak ahalbidetuko dituen **espazioa eta giroa prestatzea da** Pestalozzi eskola aktiboaren **gakoetako bat**, umeen benetako interesak piztuko dituzten espazio eta materialekin eta natura-eta kultura-elementuekin hornituta.

*Giro prestatuaren* kontzeptua Montessoriren ekarpena bada ere, wildarrek kontzeptu hori garatzen jarraitu zuten, sakon eta aske. Giroa prestatzerakoan, erreferentzia garrantzitsua izan zen haientzat Jean Piaget, garapen-etapa bakoitzean eta haurraren adimenaren ulermenean.

Ez ziren eskolak ematen, **giro prestatuaren** bidez ikaskuntza esperientzia autonomo eta aberasgarria izan zedin lortzen zutelako, haurrak ingurunearekin duen elkarrekintza sensorial eta motorrak bultzatuta. Irakasleen eta ikasleen rol tradizionalak eraldatzea dakar horrek, eta, horretarako, irakasleek xehetasun handiz prestatu behar dituzte kanpoaldeko eta barrualdeko giroak.

Bizi-prozesuak errespetatzen hasteko modurik egokiena eskola **natura-espazio** zabal batean kokatzea da,

umeak izaki naturalak direla kontuan hartuta, giro horixe delako garapenerako gutxien prestatuta dagoena, eta, gainera, giro horrek egiturarik ez duelako: lurra, belarra, landareak, loreak, zuhaitzak, fruta-arbolak, animaliak, basoa, baratzea eta abar dituzte. “Giro horretan, haur lotsatienak ere bizitzaz betetzen dira, eta agresiboak lasaitu egiten dira” (Wild, 2002). Horrekin batera, hortxe izango dute helduek **kanpoaldeko giroan prestatzen dutena** ere: hondartegia, urarekin jolasteko guneak, jolas simbolikorako eta motriztaterako egiturak, hala nola zabuak, zintzilikatze, igotzeko, jaisteko edota eskalatze egiturak, koltxoneta elastikoak, tiro-linak, eta kirol askotarako jokalekuak (eskubaloia, futbola edota boleibola jolasteko aukerak eskaintzen dira Pestalozzin), aroztegia, eskulanetarako txokoa (josteko makina, ehungailuak), meteorologia-txokoa, etab.

Bestalde, espazio eta jolas-material egituratu erakargarriak dira **barrualdeko giro prestatuak**, heldu baten motibaziorik gabe eta modu autonomoan jolastera eta erabiltzera gonbidatzen dutenak; garapen-etaparen

“Pestalozzi eskolan ez da eskolarik ematen; ez dago ikasketa-programaziorik; ez da ikasgai zatikaturik ematen ordutegi finko batean; ez dago azterketarik edota kalifikaziorik, eta haur eta nerabeek ez dute aukietan eserita egon behar mahai aurrean, heldu batek zer egin behar duten esaten dien bitartean. Irekita daude eskolako espazio guztietako ateak, haur eta gazteak nahi dutenean sartu eta irten daitezten”

arabera sortzen diren beharrak aseko dituzte espazio eta material horiek.

Lehen Hezkuntzako haurrak behar unibertsal bat dauka: mundua nolakoa den jakin nahi du. Horretarako, espazio eta material operatibo eta manipulatio askotarikoak sortu zituzten Pestalozzin: kalkulu matematiko espontaneorako, pentsamendu logikorako edota natura-zientziarako guneak, laborategia (urarekin, suarekin, elektrizitatearekin, elektronikarekin eta abarrekin esperimentuak egiteko eta adin horretan esperimintatzeko duten berezko beharra asetzeko), hizkuntzak ikasteko guneak, arterako espazioa (margokak, musika, dantza), inprimategia... Gainera, igerilekura joateko aukera zuten, eta mota askotako irteerak egi-

ten zituzten, astean behin gutxienez: museoetara bisitak, natura-ibilaldiak, lanpostu ugariren behaketak... Eskolan, lantegiak eskaintzen zitzaizkien, gainera, borondatezkoak. Nahitaezko ekintza bakarra astean behin egiten zen batzarrera joatea zen: haur, nerabe eta helduen arteko bizikidetzarako erabakiak hartzeko eta arauak berrikusteko organoa zen batzarra.

Bigarren Hezkuntzan, nerabeak duen behar unibertsal nabarmenena identitatearen bilaketari lotutakoa da: mundu honetan nor den aurkitu eta jakin nahi du. Pestalozzi eskolako espazioak modu intimoagoan prestatu zituzten, elkarrekin hitz egiteko; aldi berean, ibilaldi luzeak egiten zituzten kanpoan, eta hilabeteak egiteko aukera zuten zenbait lanpostutan.

Giro prestatua da pedagogia horren zutabea: haur eta nerabeen behar eta interesekiko adi egon behar dute irakasle bidelagunek. Haurrengan interesgune berri bat piztu dela antzematen dutenean, material operatiboak asmatzen eta sortzen dituzte, eta eskuragarri jartzen dizkiete, haurrek beraien kabuz ulermena zabaldu dezaten. Hortaz, umeen interesek gidatzen dute espazio eta materialen egituraketa. Etengabe eraldatzen eta berregiten den espazio bizi eta aktiboa da.

#### **Irakaslearen rola aldatu egiten da, eta giro lasaia bermatzen du helduak**

Haurrak dauden espazioetan, irakasle bidelagun batek egon behar du gutxienez; kalitatezko presentzia izan behar du, haurren benetako beharretara egokitzeko, besteak beste, haurrak material manipulatioekin nola jolastuko den galdetzen duenean hari laguntzeko eta lantegiak eskaintzeko. Giroaren kalitatearen beste ezaugarri bat lasaitasuna da: **giroak lasaia izan behar du**. Helduek bermatuko dute hori, haurren arteko elkarrekintzetan sor daitezkeen gatazketan afektuzko jarrera erakutsiz eta, behar denean, bizikidetzara-arauak oroitaraziz, denek lasaitasunerako.

#### **Askatasuna eta autonomia: erabakiak hartzea, eguneroko praktika**

Pestalozzi eskola aktiboan, bako-

tzak bere behar primitiboak asetzeko askatasuna dauka. Daukatenarekin zer egin nahi duten erabaki behar dute etengabe, eta zerekin, zeinekin eta zenbat denboraz ikasi nahi duten. Dituak aukeren artean, erabaki egin behar du haurrak, eta bere burua sentitzera eramango du horrek; hau da, garatzen duen ekintzarekin, zerbait sentituko edo lortuko du: lasaitasuna, nekea, asperdura, urduritasuna, alaitasuna, aurkikuntza bat bere kabuz egin ondorengo gogobetetasuna, etab.

Erabakitze askatasuna sentitze-ko aukerarik izan ez duenarentzat esperientzia mingarria izan daitekeela diote wildarrek, haurrek beraien barrenean autonomia eta ziurtasun-eza aurki ditzaketelako, eta gertatzen denaren ondorioen arduradunak izango direlako.

Bizikidetzara egokirako arauen esparruan kokatzen da askatasun-giroa.

#### **CEPA: León Dormido proiektu integral eta komunitarioa**

Pestalozzi eskola alternatiboak 2005ean itxi zituen ateak, Wild bikoteak ezinbestekotzat jo zuelako proiektu integralagoa sortzea. Haur eta gazteen beharrak errespetatzeaz gain, helduenak ere errespetatzen zituen komunitate-proiektua sortu zuten, Pestalozzin egondako familia batzuekin batera. León Dormidoko CEPA zentroan (Ekintza Autonomorako Zentroa), ekonomia eta pedagogia alternatiboa uztartu zituzten, eta elkarrekiko laguntza-sarea sortu. Gurasoek horrela eskolan beren seme-alabekin egoteko aukera zeukaten, hezkuntza beste inoren esku utzi gabe.

Egun, Ekuadorren etengabe gartzten eta eraldatzen ari den mundu-ikuskeraren baten testigantza bizia da Pestalozzi Hezkuntza Fundazioaren León Dormido proiektu integral eta komunitarioa.

2015ean zendu zen proiektu horren sortzaile nagusietako bat, Rebeca Wild. Haren senarrak han jarraitzen du gaur egun, lerro hauek idazten ditudan bitartean, komunitateko beste familia batzuekin batera munduko bazter askotan haien esperientzian interesa dutenei komunitateko ateak zabaltzen eta prestakuntza eskaintzen.







# GALDEIDAZU

## ZER GARRANTZI DAUKA HELDUAREN BEGIRADAK HAURRAREN HAZIERA- ETA HEZIKETA-PROZESUAN?

Zentzumenen bidez hautematen dugu ingurua, eta begien bidez ikusten dugu mundua. Baina ez ote daude inguruneari begiratzeko modu bat baino gehiago? Ez ote daude haurrari eta gazteari begiratzeko askotariko moduak?

Bakoitzaren ahalmenak edo gaitasunak kontuan harturik begiratzen diogu haurrari edo gazteari, edo dituen hutsune edo gabezietara zuzentzen dugu gure begirada? Fokuratze-kontua da guztia, hala nahi baduzue, baina zer modu da baliagarriena haurraren garapen integrala bideratzeko? Eta haurrak bere buruaren irudi positiboa izan dezan?

Beharrezkoa iruditzen zait gogoe-ta hori egitea, gizarteak bultzatzen dituen balioak gabezietan gelditzen direlako, eta, aldiz, dituen ahalmenak bideratuz gauzatzen delako haurraren garapen positiboa. Ditugun hezkuntza-erreferentzia gehienek gabezietan jartzen dute arreta bereziki; alabaina, atseginagoa izateaz gain, eraginkorra goa da, nik uste, haurraren garapena hark dituen ahalmenetatik abiatuta bideratzea.

Haurrak berezkoak dituen joera biologikoak bideratzea genuke lehen pausoa:



### MAPI URRESTI PSIKOMOTRIZISTA



Jaio denetik da haurra aktiboa; jaiotzetik da bere garapen osorako eta bere ahalmenak edo gaitasunak bideratzeko aukera emango dion joera biologikoaren jabe:

- Helduari atxikitze joera du haurrak. Oinarrizko beharrei erantzuten dieten pertsonetik lotura afektiboa da, hain zuzen ere, atxikimendu hori. Haur jaio berria ezin da pertsona helduaren laguntzarik gabe bizi, eta hari atxikitzen zaio, garatu ahal izateko.
- Adierazpen emozionalen bidez azaltzen ditu bere beharrak. Irria; negarra; xurgatze-erreflexua, jateko eta lasaitzeko; begirada, helduaren arreta bereganatzeko eta maitasuna sustatzeko...
- Helduarengan segurtasuna badu, ingurura begiratzeko eta mundua esploratzeko joera garatuko du. Jaio denetik ari da mugitzen, eta zenbait aldi motor biziko ditu.
- Aurretiazko enpatia du, besteak hor daudela sentitzeko eta harremanak bideratzeko. Haurrak bere NIa garatu duenean, besteenganako interesa azalduko

du, eta, beraz, harremana bilatuko du.

- Interesa du, inguruan duen guztia ikertzeko eta manipulatzeko. Eginiko lorpenak egiaztatu bezain laster, beste lorpen batzuk eskuratzeko joera azalduko du.

Integrala da garapena: ezin da alor bat benetan garatu, beste bat garatu gabe utzita. Bata bestearekiko elkarrekin-tzaz gauzatzen dira garapen afektiboa, sexuala, motorra, emozionala, morala eta kognitiboa, haurrak bere modu propioa eraiki bitartean.

Haurraren ahalmenak eta identitatea nahasten ditu helduaren **epaile-begiradak**, eta halako eten bat sortzen du, horrenbestez, haurraren eta haurrak garatzeko berez duen senaren joeraren artean. Helduaren **begirada positiboak**, aldiz, bere buruaren eta dituen ahalmenen isla positiboa eskaintzen dio haurrari, bere buruarengan sinets dezan eta beste lorpen batzuk eskura ditzan.

Zuzenean sentitutako begirada izan behar luke gure begiradak. Haurrari onurak ekarriz begiratu behar diogu, ikusten duguna hark ere senti eta barnera dezan. Zentzumen guztiekin egon behar dugu han; modu positiboan sentituko du, orduan, haurrak bere burua, eta helduaren begirada positiboan topatuko du bere burua. Gure **begirada gabeziei** zuzentzen bazaie, aldiz (gu han gaude, baina gure pentsamenduak beste nonbait daude, lanean edo betebeharreran), ez ditugu haurraren ahalmenak ikusiko, aintzat hartuko, islatuko. Haurrak beharrezkoa du gu haren eskura egotea, bere ahalmenez jabe dadin eta bere buruaren irudi positiboa osotasunean senti dezan; hala, erronka berrien bila abiatuko da.

Geure izate osoaren distira da begirada. Gizartearen joera estresagarriak **ari eta ari** jardutera bultzatzen gaitu eskuarki, eta haurrak ez gaitu gu ariketa horretan behar; aitzitik, harekin gaudela sentitu behar du. Ondoan egon behar dugu, eta ondoan sentitu behar gaitu, eskura.

Badakit esaten ari naizena ez dela horren erraza, baina erronka horixe onartu behar dugu, hain zuzen, gurasook eta irakasleok. Huts egingo

dugu; gabezietan topatuko dugu maiz geure begirada; baina geure eginkizuna da, era berean, horren gaineko kontzientzia hartzea eta begirada positiboa egokiro fokuratzea. Entrenamendu kontua baizik ez da begirada hori argitzen ikastea.

Horrenbestez, ez dut esan nahi haurren zailtasunei erreparatu behar ez diegunik. Haur guztiek dituzte hobetzeko gauzak, eta, bestalde, garapena ez da haur guztiengan horren modu naturalean sortzen. Hamaika oztopo izan ohi ditu garapenak, eta garapen positiborako bidea eragozten dute, zenbaitetan, aurretiazko joera biologikoeak. Beraz, txikitatik behatu behar diegu haurrei, baina zailtasunei ere erreparatuz, eta adierazle afektibo, emozional, moral, kognitibo edo sozialei so eginez. Ez du ezer eskatzen; ez da besotan hartzean lasaitzen; ez da itzulipurdika ezer egiten saiatzen; ez du negarrik egiten; ez ditu objektuak manipulatzeko; ez da helduarengandik urruntzen; ez du bestearen mina sumatzen; zaila egiten zaio frustrazioa bideratzea...

Adierazleei so eginez, jarduera zehatzak bideratu ahal izango ditugu, eta haurraren garapenean lagunduko dugu. Jarduketak helburu zehatza du, kezkatzen gaituzten adierazleekin lan egiteko. Horretarako, baliabide ederra bezain eraginkorra dugu jolasa. Plazerean murgildua bizi da haurra, eta dituen zailtasunei aurre egiten laguntzen dio, oharkabean, jolasaren plazerak. Arestian adierazi dugun bezala, haurraren ahalmenetan eta garapenerako aukeretan jarri behar dugu arreta jolas-une horietan. Geure beldurretan murgilduta gelditu beharrean, haurraren sinetsi behar dugu, eta dituen zailtasunetan lagundu behar diogu. Funtsezkoa da, horretarako, zailtasunei aurre egiterakoan zertan den trebe aztertzea.

Gure izaeraren parte dira zailtasunak, eta, geure ahalmenak sentitzen ditugun heinean, haiek gainditzeko gauza gara. Desberdinak gara denok; bakoitzak bere nortasuna du, eta aberastu egiten gaitu aniztasunak.

Laburbilduz, egon gaitezen lasai geure haurrarekin, uneak partekatuz, haurra den bezala onartuz eta maitatuz. Hortxe edukiko ditugu beti zail-

Ditugun hezkuntza-erreferentzia gehienek gabezietan jartzen dute arreta bereziki; alabaina, atseginagoa izateaz gain, eraginkorragoa da, nik uste, haurraren garapena hark dituen ahalmenetatik abiatuta bideratzea.

Integrala da garapena: ezin da alor bat benetan garatu, beste bat garatu gabe utzita. Bata bestearekiko elkarrekin-tzaz gauzatzen dira garapen afektiboa, sexuala, motorra, emozionala, morala eta kognitiboa, haurrak bere modu propioa eraiki bitartean.

Haurrari onurak ekarriz begiratu behar diogu, ikusten duguna hark ere senti eta barnera dezan. Zentzu guztiekin egon behar dugu han; modu positiboan sentituko du, orduan, haurrak bere burua, eta helduaren begirada positiboan topatuko du bere burua.

tasunak, eta oso baliozkoa gertatuko zaigu adi egotea eta zailtasun horiei erreparatzea. Bide horretan, lagun ona izango dugu, betiere, zuzeneko begirada positibo maitekorra. Garena gara, eta geure burua onartuz egiten dugu garapenean aurrera. Begietara begira, begiz begiko begiradatik ikus dezakegu geure haurraren barneko edertasuna, haren ahalmena, haren maitasuna.





# ARGITALPENAK



**BAINERA BETE ITSASO**  
Miren Amuriza / Irati Eguren

## ELKAR

“Mara! Mara! Mara!” oihukatzen dioten bakoitzean, airea falta haurrari. Arinetan komunera joan eta atea ixten du orduan, danba! Biluztu, baineran sartu eta urpean murgiltzen da harik eta mundua entzuten ez den lekura iristen den arte. Han behean, koral eta baleaz inguratuta, arnasa hartzen du ostera ere. Itomen baten kontakizuna da.



**AZERI JAUNA**  
Nekane Fernandez

## DENONARTEAN


Azeri ehiztari baten egun-pasa kontatzen du liburu honek, nola ezagutzen duen paraje zoragarri bat eta zer gertatzen harrigarri bizi dituen ondotik. Bide galduetan barrena eramaten dute azeria jo-puntuari jarriko zaizkion untxiek, akordatzerako gaua iritsiko zaio, eta etxerako bidea topatu ezinik geldituko da.



**MAMUEN UHARTEA**  
Steve Stevenson

## MEZULARI

Bost dira Pirata Eskolan lehen ikastaroa egiten ari diren Itsaskumeak. Bukanero adituak izan nahi dute. Ekaitz ikaragarri batean bizia arriskatu eta gero, Uharte Gatibura heldu dira, euren txalupa irauli ondoren. Lekuak beldurgarri itxura du, inor ez dabil inguruan. Baina orduan norera behar luke gotorlekuan entzuten den ahotsa?



**MATILDE**  
Sofia Zapata Ochoa

## KALANDRAKA

Matilde neska bizia da. Isil-gordeka, artista baten estudioa sartu eta iheska ateratu da, pintzel bat hartuta. Harekin, dragoi bat margotu du. Eta, ustekabean, dragoia, paretatik saltatu, neskatoari izkin egin, eta bihurrikeriak egiten hasi da. Margolaria, zorionez, behar den unean agertu da Matilderi laguntzeko.



**ARRATOI KIRASTUNAREN KASU BITXIA**

Geronimo Stilton

## DESTINO

Etiketarik irten, eta biboteak kizkurtu zitzaizkion Geronimo Stiltoni. Inork jasan ezin duen kiratsa zabaldu zen Sagurain osoan. Nondik ote zetorren usain txar hori? Biztanle guztiak haserre ziren, arropa zintzilikatzeko kako saltzaileak izan ezik. Ikertzen hasi zen Stilton jauna, bere lagun Saltserorekin.



**TIPI-TAPA-TIPI ILUNABARREAN**  
Miren Agur Meabe / Eider Eibar

## DENONARTEAN

Zuria nagusi, kolore hori-gorri-arreen artean, paseo baten kronika egiten zaitugu. Ezer berezirik egiten ez denez —ez ihesaldi, ez gaizto, ezta susto larririk ere— unean uneko ekintza xumeei ematen zaien indarra, eta hauetatik eratorritako emozioa bihurtzen da irakurketaren plazer gunea.

# PROPOSAMENA

## MOTXILAREN UMEA film pedagogikoa

### Dispertsioaren zama arindu nahian

Kurkuluxetan kultur elkarteak Rita Naveirak zuzenduriko 'Motxilaren umea' film pedagogikoa ekoitzi du, presoen seme-alaben eskubideak miran jartzeko helburuarekin. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailetan lantzeko unitate pedagogikoak ere sareratu ditu.



**M**aiderren eta haren amaren historia kontatzen du *Motxilaren umea* filmak. Helburu pedagogikoa duen pelikula da, eta haurren eskubideak jartzen ditu ikusmiran, presoen seme-alaben eskubideak. Nazio Batuen Erakundeak 1995ean Haurtzaroren eskubideak aldarrikatu zituen, baina filmak erakusten eta lantzen duen eran, Espainiako eta Frantziako Estatuak ez dituzte eskubide horiek bermatzen, dispertsioak ehunka kilo-

metrotan banatzen baititu aita-amak euren seme-alabengandik. Euskal Herriko ehunka umek nozitzen duten errealitatearen berri eman nahi du Kurkuluxetan Kultur Elkarteak film pedagogiko honekin, eta haur horiei urratzen zaizkien eskubideen inguruan sentsibilizatu nahi du euskal jendartea.

Rita Naveira da filmaren zuzendaria, eta haren hitzetan, aita edo ama preso duten haurren motxila ireki nahi izan dute film honekin: “His-

toria labur honen bidez neska mutil horien bizipenak mahai gainean jarri nahi izan ditugu, egoera hori nola bizi duten ikusi nahi izan dugu, kilometrotan ez ezik afektibitatean, neurtzen den distantzia hori nola bizi duten, zer esan nahi duen eurentzat bidaia luzeak dakarren nekeak, zer-nola bizi duten normaltasuna hauste hori, zein diren euren galderak, zalantzak, tentsioak jakin nahi izan dugu”.

Motxilak lekualdaketek eragiten

duten haustura sinbolizatzen du. Normaltasuna haustea baitakar motxila prestatu eta 700 kilometrora gurasoa bisitatzea joateak. Mainerentzat motxila hori janzteak amarekin elkartzeari adierazten du, baina baita nekea, urduritasuna, beldurra eta tristura ere, amaz agurtu beharra, ama han, kartzelan utzi beharra. Aitonarekin egingo du Mainerrek 1.400 kilometroko joan-etorria, eta hari kontatuko dizkio bere ametsak eta kezkek.

Motxila, era berean, elementu sinboliko bat da beste ikaskideei, adiskideei adierazten diena Maider asteburuan ez dela etxean izango, ez kalean eurekin jolasteko.

### Enpatia helburu


Itziar Ituño, Maider Latatu eta Jose Angel Aramendi dira filmeko protagonista nagusiak. Dima herrian eta Segoviako espetxe zaharrean filmatua dago pelikula. Baina kontatzen duen historia ez da zehazki familia konkretu baten historia, hainbat historiaren oihartzuna baizik. Gainera, gidoia osatzeko motibazio anitzeko presoen eta euren familien historiak ezagutu dituzte egileek, Salhaketa presoen aldeko elkartarekin harre-

manetan.

Haurrei zuzenduriko filma da, eta 22 minutuko pelikula pedagogikoak bi atal ditu: batetik Mainerren historia kontatzen da, eta bigarren zatian haurtzaroaren eskubide aitortuen berri ematen du ikuspegi objektibo batetik eta ez ideologiko edo politikotik. Irakasle batek eta psikologo batek parte hartzen dute filmean, eurek lantzen duten esparrutik problematikaren hurbilpen bat egiten dute.

“Haurrek ez dute ulertzen zer den dispersioa, baina oso ondo ulertzen dute zer den euren gurasoekin ezin egotea”, dio Naveirak. Zuzendariaren eta lan-taldearen arabera, mezu positiboa zabaltzea du helburu filmak, “ziurrenik ez da gure esku egongo errealitate hau gauetik goizera aldatzea, baina bai haur horiekiko elkartasuna eta enpatia erakustea”.

Filmaren ahalik eta zabalpen handiena egiteko Youtuben doan ikusteko aukeran jarri du Kurkuluxetan Elkarteak. Eta berau ikastetxetan lantzeko Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailetan lantzeko unitate didaktikoak ere prestatu dituzte, [www.kurkuluxetan.eus](http://www.kurkuluxetan.eus) webgunean daude eskura.



### ‘MOTXILAREN UMEA -’ film pedagogikoa

**Egilea:** Kurkuluxetan Kultur Elkarte

**Zuzendaria:** Rita Naveira

**Aktoreak:** Itziar Ituño, Maider Latatu eta Jose Angel Aramendi

**Musika:** Itsaso Azkona eta Joserra Gutierrez

**Hizkuntza:** Euskara (katalanez, galegoz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez azpiztitulaturik)

**Zabalpena:** Youtuben, doan

**Finantziarioa:** Kurkuluxetan Kultur Elkarte

**Informazio gehiago:** [www.kurkuluxetan.eus](http://www.kurkuluxetan.eus)

### PROPOSAMEN PEDAGOGIKOA

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailetarako pentsaturiko unitate didaktikoak prestatu dituzte, webgunean daude eskuragarri.





# ATZEKO ATETIK



## AUTOBUS ZAHAR BAT

IBON GAZTAÑAZPI KAZETARIA

**J**ulianen autobusean osatzen genituen eskolara iritsi arteko 5 kilometroak orduko OHO egitera Oriotik Zarautza joaten ginen mutil eta neska koskorrek. Egunean bi joan-etorri, 20na minutuko lau autobusaldi, berriketan, kantari, isilik, karta jokoan, irratia eta musika entzunez, euriak lausoturiko leihotik begira, etxerako lanak errepasatuz, barrez, negarrez...

Eskola hitza aipatu eta eskola bera baino lehenago etortzen zait autobus zahar haren irudia, hango unibertsoa, 7 eta 14 urte bitarteko 60 neska-mutiko sardin lata batean bezala sartuta, Orioko gainean gora eta behera errepide bihurrian barrena. Ondo gogoan dut, esaterako, gure 7 edo 8 urterekin barrabaskeriaren bat edo beste egin eta gidariak nola esaten zigun, guk ezer ulertzen ez bagenuen ere, zakar: “Zuek handitan, ETAkoak...”. Borrokaldi asko ere gomutan ditut, eta baita zeinen gordin jarduten ginen geronen artean ere; umeez umeei eragindako mina. Mundualdi honen paradoxa bera bailitzan, gelako lau horma artean igarri ere egin ez nuen ikasi nuen, artean ume, autobus zahar hartako leihotik begira: bidean amets egiten.

Autobusetik kanpoko errealitatea ere ez zen gaurkoa bezalakoa.

Errepide bazterrean txikitutako auto ugari eta pare bat hilotz bistatzen genituen ikasturteko, Orion 27 bapore zeuden, eta askotan gelara berandu iristen ginen arrantzaleen sarea zeraman gurdiaren atzetik joan behar izaten zuelako autobusak mantso-mantso. Zarautzen gaur baino turista gutxiago zebilen eta kebab bakar bat ere ez zen, kaminoan alkohol kontrolik ez zen ikusten, baina jendea bai auto-stop egiten. Beste garai batzuk.

Eskolako gelan irakurtzen eta batuketak egiten irakatsi ziguten, edo saiatu ziren behintzat. Esproncedaren pirataren kanta buruz ikasi nuen, ingelesezko lehenengo hitzak eta euskararen aditz laguntzailearen taula ere bai. Jaungoikoa Aitak, Se-meak eta Izpiritu Santuak osaturiko hiruko izate goren ukiezina dela, berriz, ez nuen inoiz ulertu. Gelatik kanpo gure izaera basa eta builosoaz zibilizatzeko ahaleginean saiatu zen eskola, eta helburu hori tarteko, besteak beste, oraindik ahazteko ez daukadan belarrondokoa jaso nuen. Zigortzen gintuztenean, saskibaloi, eskubaloi eta futbol zelaiko paper zatiak jasotzea zen erredentziarako bidea.

Garaiko pedagogia hark ez ahal zuen dena ilunetik eta zigortzailetik izango, eta orduan gelakideok

elkarri mokokadaka ibiltzen baginen ere, urteak pasata ikasi dugu elkar estimatzen. Lehengo astean egin genuen bazkaria 8 urte luzez eskolan elkarrekin hazi eta aurten 40 urte beteko ditugun eskola ume haiek. Errobailoa jan eta txakolina edanez gogoratu ginen haur garaiko mila pasadizoz, 11 urte genituela gelan gustatzen zitzaigun mutila edo neska zein zen aitortu genuen, eta irrifar konplize bat ezpainetan bakoitzak gure egungo egoeraren berri eman genuen, badakizue, lana, familia, osasuna, konpainiak... Apain-apain jarrita hasi zen juntadizoa ordu txikitik bukatu zen Zarauzko dantzaleku batean. Eroso, gustura, gogoz, gertuko sentitu ginen eta segur aski, horixe da gela hartatik atera dugun onena.

Ume askoz gutxiagorekin, autobus modernoago batek egiten du orain Oriotik Zarautzerako bidea. Egunero ikusten dut, 8 eta 5 urteko alaba eta semea ikastolan utzi, eta guraso paperean errio bazterretik etxera natorrela. Orduko haur ile-kizkur mugitu hura zertan den galdezka itzultzen naiz, non dagoen, bizi ote den, zer bihurtu ote den, autobus hartan amestu zituenak bete ote diren. Halaxe heltzen naiz etxera, ezer ulertu gabe baina ia haur bihurtua, ametsez bete-bete eginda.



Argazkia: J. Irujo/LENBUR



# Mirandaolako Burdinola martxan!!

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik industrializazioa Euskal Herrian burdinak izen duen garrantziaz jabetuko gara.

Hiru gune

**1** Burdinolen ibilbidea, XI-XIX menderaina:  
Aizkoni-Aratz perke Nebulareren nagaien, UR-OLA bala jartzen da, Burdin Haranaren ardatz nagusia. Beran olatzozten eta berentzenak bizi izan dira.  
- Artzentimon Ekoteola  
- Ojoran Erreka

**2** Mirandaolako Parkean, XIX. mendearaino.  
Aurre industrializazioen mugilduko gara, Mirandaolako Burdinola martxan ikusiz. Teknologia, energia, lanbideak eta besteak beste garatzen ditugu.  
- Euzko Burdinaren Museoa  
- Mirandaolako Burdinola

**3** Langileen ibilbidea, Iraultza Industrialia.  
Burdinola zaharrek lantegi bilturuko dira, olatzoztenak langile, eta berentzen esko langileen etxebizitza. 1950. urtean mugilduko gara, frankismo garaiko herri industrializatu batetan.  
- Lantokia  
- NEDeko eskola eta etxebizitza  
- Olatz Lantoki - Artea



Talde handientzako prezio bereziak.  
Natu izanaz gero, ingeleset egin dazake bisita  
Olapintza dardatzen auzera

www.lenbur.com  
943 73 18 95  
943 73 04 28  
ikerкета@lenbur.com

Egun bateko edo bi zehatu egundako egaraldiak. Egurak txararekin "B" plana. Mota guztiak egokitutako taler eta bitak. Mirandaolako Parkean, merenderoa, frontoia, haur-parkea, pola jokoa, eta beste daude.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Auzo, Turismo, Berriak  
eta Kulturako Departamentua





# III. “Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak



OIN HERRI *Partidularia Berdeakoa, Nazionalen Batzularia*



HEIKE FRIESE *Coordinadora de Pedagogía del colectivo aseraketa*

## Maiatzak 19 eta 20. DONOSTIA

Landuko den gara

**HARREMANAK:** harreman osasuntsuak izatearen garrantzia norberaren garapenerako eta komunitatearen ongizaterako.

### **Antolatzailea: OinHerri**

Itzen Lagunak Kluba, Oursualdeko Garapen Agentzia, Topagunea, Amarauna Sarea, Taldeakalera, Atermanitz elkarteak, Sorguneak ikasdegia (Habezi, M7), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Arrasateko Txatxilapuri eskola eta aisialdiko elkarteak, Urtxintza Eskola Birkala, Urtxintza Eskola Gipuzkoa, Lizarrako eta Iruñeko udal hauei eskolaren taldea, Txakur Kultur Elkarteak, Kukumioak, Elgoibarako Izarra, Pil-pilean eskola elkarteak eta Hiki Hasi pedagogia-elumenak.

Informazioa eta izena ematea  
apirilaren 3tik aurrera:

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)